


**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ERREPIDEEZ ETA TRENBIDEEZ SALEROSGAI
ARRISKUTSUAK GARRAIATZEAK DAKARREN
ARRISKUA DELA-ETA SOR
DAITEZKEEN LARRIALDIEI AURRE
EGITEKO PLAN BEREZIA**



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HERRIZAINGO SAILA

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ERREPIDEEZ ETA TRENBIDEEZ
SALEROSGAI ARRISKUTSUAK
GARRAIATZEAK DAKARREN
ARRISKUA DELA-ETA SOR
DAITEZKEEN LARRIALDIEI AURRE
EGITEKO PLAN BEREZIA**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HERRIZAINGO SAILA

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2002

Argitaraldia: 1.a, 2001eko azaroa
Berrinprimatzea: 1.a, 2002ko iraila

Ale kopurua: 6000 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Herrizaingo Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: www.euskadi.net

Fotokonposizioa: Artes Gráficas ELKAR, S. Coop.

Inprimaketa: Artes Gráficas ELKAR, S. Coop.

ISBN: 84-457-1793-6

D.L.: BI-2003-02

10/2001 EBAZPENA, abuztuaren 1ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko errepideez eta trenbideez salerosgai arriskutsuak garraiatzeak dakarren arriskua dela-eta sor daitezkeen larrialdiei aurre egiteko Plan Berezia onartzen duen Jaurlaritzaren Kontseilua-ren Erabakia argitaratzea xedatzen duena.

Jaurlaritzaren Kontseiluak 2001eko uztailaren 30ean egindako bilkuran, Herrizaingo sailburuaren proposamenez, Euskal Autonomia Erkidegoko errepideez eta trenbideez salerosgai arriskutsuak garraiatzeak dakarren arriskua dela-eta sor daitezkeen larrialdiei aurre egiteko Plan Berezia onartzen duen Erabakia hartu zuen; ondorioz, erabakiak behar duen zabalkundea emateko, honakoa

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra. Euskal Autonomia Erkidegoko errepideez eta trenbideez salerosgai arriskutsuak garraiatzeak dakarren arriskua dela-eta sor daitezkeen larrialdiei aurre egiteko Plan Berezia onartzea. Plana ebazpen honen eranskinean agertzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko abuztuaren 1a.
Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko
Harremanetarako zuzendaria,
JOSE LUIS ERREKATXO LABANDIBAR.

AURKIBIDEA

1. PLANAREN HELBURUA.....	9
1.1. Lege esparrua	10
2. ERREPIDEZ ETA TRENBIDEZ GARRAIATURIKO SALEROSGAI ARRISKUTSUEN JOAN-ETORRIARI BURUZKO AZTERKETA	13
2.1. Errepidez garraiatutakoa	13
2.2. Trenbidez garraiatutakoa	23
2.3. Istripuak	27
3. ARRISKU HANDIKO ALDEAK	29
3.1. Ondorioak.....	33
4. PLANAREN EGITURA ETA ANTOLAKUNTZA.....	35
4.1. Zuzendaria	36
4.2. Zuzendaritzako Batzordea	37
4.3. Aholku Batzordea	38
4.4. Informazio Kabinetea	39
4.5. EKZ (Ekintzak Koordinatzeko Zentroa)	40
4.5.1. Definizioa eta eginkizunak.....	40
4.5.2. EKBZren sorrera (Ekintzen Koordinazio Bateraturako Zentroa)	40
4.5.3. Kokalekua	41
4.6. Aginte Postu Aurreratua	41
4.7. Ekintza taldeak	42

4.7.1. Esku hartzeko taldea.....	42
4.7.2. Osasun taldea	44
4.7.3. Segurtasun taldea	45
4.7.4. Logistikako taldea	46
4.7.5. Laguntza teknikoko taldea.....	46
5. JARDUTEKO ERA.....	48
5.1. Istripua iragarri	48
5.2. Jarduera mailak	49
5.2.1. Istripuaren larritasuna balioztatzea	49
5.2.2. Jarduera mailak (larritasunezko aldiak edo egoerak)	50
5.2.3. Egoera bakoitzari buruzko adierazpen formala.....	52
5.3. Ekintzak	53
5.3.1. Istripua kontrolatu eta neutralizatzea	53
5.3.2. Populazioa babestea	54
5.3.3. Populazioari informazioa ematea	54
5.4. Bitarteko eta Baliabideen Katalogoa	56
6. SALEROSGAI ARRISKUTSUEKIN GERTATZEN DIREN ISTRIPUEI AURRE EGITEKO TOKIKO JARDUERA PLANAK	57
6.1. Tokiko Jarduera Planaren xede eta eginkizuna	58
6.2. Euskadiko Errepidez eta Trenbidez Garraiatzen diren Salerosgai Arriskutsuekin gerta daitezkeen Istripuei Aurre Egiteko Plan Bereziaren eta tokiko planen arteko lotura.....	58
6.3. Jarduera Plana ezarri eta iraunaraztea	59
7.– PLANA EZARRI ETA IRAUNARAZTEA	60
7.1. Ezarpena	60
7.1.1. Plan Bereziaren azpiegitura egiaztatzea.....	61
7.2. Iraunaraztea	61
7.2.1. Eguneratzea eta berriz aztertzea	61
7.2.2. Istripu itxurak	62
7.2.3. Etengabeko prestakuntza	62
7.2.4. Istripuek eragindako larrialdiei buruzko estatistikak	63

1. PLANAREN HELBURUA

Mila bederatziehun eta laurogeita hamazazpian 3,5 milioi tona salerosgai arriskutsu ibili dira Euskal Autonomia Erkidegoan. Salerosgaion irteera edota helmuga ez da beti Autonomia Erkidegoan egon; baina, bere geografia kokalekua dela-eta, Iberiar penintsulako beste leku batzuetatik irten eta beste helmuga batzuk dituzten salerosgai arriskutsu ugari igarotzen dira gure errepideez eta trenbideez.

Salerosgai arriskutsuon bolumena dela-eta, eta garraiatze mota horri murrizte ugari ezartzen bazaizkio ere, ia ezinezko egiten da gorabeherak gertatzea. Euskal Autonomia Erkidegoan ehun bat gorabehera gertatzen dira urtero, azken urteotako estatistiken arabera. Hala ere, gorabeheren %90ean salerosgai arriskutsuek edo edukiontziek ez dute gorabeherarekin zerikusirik izaten.

Istripu hauetan guztietan, Erkidego honetako larrialdi zerbitzu arruntek arin eta zuzen konpondu zuten eratorritako egoera; hortaz, ezin esan daiteke galera berezirik egon denik, istripuak berak sortarazitakoez gain. Hau da, ez da beharrezkoa izan larrialdi baten aurrean erabiltzen den antolakuntza egitura arrunta aldatzea.

Larrialdiei Aurre Egiteko Plan hau Herri Babesaren Plangintzaren Oinarrizko Gidabidearen arabera egin da, hau da, errepidez eta trenbidez garraiatzen diren salerosgai arriskutsuekiko istripu arriskuen aurreko eskakizunen arabera. Gainera, istripuaren larritasuna dela-eta larrialdiei aurre egiteko zerbitzu arruntak eskas gertatzen diren eta zu-

zentze eta koordinatze lanak administrazio egiturako goi agintarien esku utzi behar diren egoeretan eman beharreko erantzuna egokitzen ere saiatzen da.

Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko errepideez eta trenbidez garraiatzen diren salerosgai arriskutsuekin gertatzen diren istripu larriei aurre egiten parte hartu behar duten zerbitzuen eta agintarien jarduteko prozedurak antolatu eta definitu nahi ditu Plan honek.

Horretarako, istripuaren eraginpean egon litekeen populazioari informatzeko prozedurak eta istripuaren eragina kontrolatu eta arintzeko erabiltzen diren bitarteko eta baliabideen katalogatzea definitu behar dira, baita Estatuko Planarekin koordinatzeko eta Tokiko administrazioetako erakundeekin antolatzeko prozedurak ere.

1.1. Lege Esparrua

Erkidegoko Plan honen lege aurrekariak errepidez eta trenbidez garraiatzen diren salerosgai arriskutsuak arautzen dituen araudian aurkitzen dira, baita herri babesaren gizarteak segurtasunaren gainean dituen eskaerentarako egokitzeko egin diren ahaleginetan ere.

Hona hemen aipaturiko legeria:

a) *Estatua*

- 1981eko azaroaren 2ko Barne Ministerioaren Agindua, errepidez garraiatzen diren salerosgai arriskutsuekin gertatzen diren istripuetan jarduteko plana onartzen duena.
- 1984ko azaroaren 30eko Barne Ministerioaren Agindua, trenbidez garraiatzen diren salerosgai arriskutsuekin gertatzen diren istripuetan jarduteko plana onartzen duena.
- Urtarrilaren 21eko 2/1985 Legea, Herri Babesari buruzkoa.

Pertsona eta Ondasun gaineko Aparteko Arriskuei buruzko 2022/1986 Errege Dekretua.

- Apirilaren 24ko 407/1992 Errege Dekretua, Herri Babesari buruzko Oinarrizko Araua onartzen duena.
- 1952/1995 Errege Dekretua, abenduaren 1ekoa, gai arriskutsuen garraioan eskumenak zein agintaritzak dituen zehaztu duena eta garraio horren koordinazio batzordea araupetu duena.
- Urtarrilaren 31ko 74/1992 Errege Dekretua, Salerosgai Arrisku-tsuak Errepidez Garraiatzeari buruzko Nazio Araudia (EG) onartzen duena (44. BOE, 1996ko otsailaren 20koa).
- Martxoaren 1eko 387/1996 Errege Dekretua, errepidez eta trenbidez garraiatzen diren salerosgai arriskutsuekin gertatzen diren istripuen arriskua dela-eta Herri Babesaren Planifikazioaren Oinarrizko Gidabidea onartzen duena.
- Trenbidez eta Errepidez egindako Garraiatzeen Zuzendaritza Nagusiaren Ebazpena, 1996ko azaroaren 21ekoa, salerosgaiak errepidez garraiatzeari dagozkion arriskuen kontrolari eta ikuskaritzari buruzkoa (303. BOE, 1996ko abenduaren 17koa).
- Ekainaren 2ko 879/1989 Errege Dekretua, Trenbidez Garraiatzen diren Salerosgai Arriskutsuei buruzko Nazio Araudia (TPF) onartzen duena (37. BOE, 1997 otsailaren 12koa).
- Urriaren 2ko 2115/1998 Errege Dekretua, salerosgai arriskutsuak errepidez garraiatzeari buruzkoa, EG araudiaren zati bat indargabetzen duena.
- Urriaren 19ko 2225/1998 Errege Dekretua, salerosgai arriskutsuak trenbidez garraiatzeari buruzkoa (262. BOE, 1998ko azaroaren 2koa).
- Salerosgai Arriskutsuak Trenbidez Garraiatzeari buruzko Nazioarteko Araudia (RID), 1985eko maiatzaren 1ean Bernan egina.

1998ko abenduaren 14ko BOEn argitaratu zen Araudiari buruzko azken testua.

- Salerosgai Arriskutsuak Errepidez Garraiatzeari buruzko Europako Hitzarmena (ARD), Genevan egina. 1998ko abenduaren 16ko BOEn argitaratu zen Hitzarmen horri buruzko azken testu bategina.
- 1999ko irailaren 21eko Agindua, errepidez edo trenbidez garraiatzen diren salerosgai arriskutsuekin gertaturiko istripuetan ekintza zerbitzuek esku hartzeko behar dituzten fitxak onartzen dituen (1999ko urriaren 8ko BOE)
- Urriaren 8ko 1566/1999 Errege Dekretua, salerosgai arriskutsuak errepidez, trenbidez edo nabigazio bidez garraiatzeari buruzko segurtasunerako aholkularien gainekoa.

2000ko apirilaren 17ko Ebazpena, Herri Babesaren Zuzendaritza Nagusiarena, istripuen berri eta gai arriskutsuen errepide eta trenezko garraioari buruzko datu jakingarrien berri emateko telefono zenbaki berriak jakinarazi dituen (EAO, 111. zk., 2000ko maiatzaren 9koa).

b) *Euskal Autonomia Erkidegoa*

- Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, Euskal Herriko Autonomia Estatutua.
- Martxoaren 8ko 34/1983 Dekretua, Ihardun Antolakidetzak sortarazten dituen.
- Abenduaren 5eko 268/1983 Dekretua, Merkatalgai Arriskutsuen Garraioa Antolakidetzeko Euskal Batzordea sortarazten duena.
- Urriaren 23ko 335/1984 Dekretua, Merkatalgai Arriskutsuen Garraioa Antolakidetzeko Euskal Batzordea sortarazten duen 268/1983 Dekretua aldatzen duena.
- Apirileko 3ko 1/1996 Legea, Larrialdiak Kudeatzekoa (1996ko apirilaren 22ko EHAA, 77. zk.)

- Ekainaren 24ko 153/1997 Dekretua, *Larrialdiei aurregiteko bidea-LABI* deritzan Euskadiko Herri Babeseko Plana onartzen duena eta larrialdiei aurre egiteko euskal sistemak dituen integrazio-bideak arautzen dituena. (1997ko uztailaren 21ko EHAA, 138. zk.)
- 1997ko uztailaren 29ko 190/1997 Dekretua, Merkatalgai Arriskutsuen Garraioa Antolakidetzeko Euskal Batzordea sortarazten duen 268/1983 Dekretua berriz ere aldatzen duena.

2. ERREPIDEZ ETA TRENBIDEZ GARRAIATURIKO SALEROSGAI ARRISKUTSUEN JOAN-ETORRIARI BURUZKO AZTERKETA

Plan honetan salerosgai arriskutsuen joan-etorriari buruz aipatzen diren datuak 1997koak dira eta Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Sailak egindako *Mapas de flujo del transporte de mercancías peligrosas en la C.A.P.V.* lanetik hartu dira.

EAEko lur-bideez salerosgai arriskutsuak garraiatzeko eskaera osoa 3.778.358 Tm-koa izan zen 1997an.

Kopuru horretatik, 3.514.457 Tm errepidez garraiatu ziren. Hau da, salerosgai arriskutsuak zeramatzan 175.000 unitate, gutxi gorabehera, ibili ziren EAEko errepideetan, zama osoa zeramatelakoan eta unitate bakoitzak batez beste 20 Tm zeramatzalakoan.

Gainera 263.901 Tm trenbidez garraiatu ziren.

I. ERANSKINEAN salerosgai arriskutsuen joan-etorriaren irudi kartografikoa agertzen da, urteko maiztasuna tonatan marrazturik.

2.1. Errepidez garraiatutakoa

Salerosgai arriskutsuak sortu eta erabiltzen dituzten EAEko 169 enpresaren datuak erabili dira errepidez garraiatzen diren salerosgai arris-

kutsuen joan-etorria zehazteko. Gainera, portu eta aireportuetako salerosgaien mugimenduak ere adierazi dira eta, azkenik, hondakin arriskutsuak garraiatzeko emandako baimenak ere bai. Horrela, EAEn irteera eta helmuga zuten salerosgai arriskutsuen joan-etorria bakarrik islatzen zen edota itsas portuen bidez bertatik igarotzen zirenak. EAetik igarotzen diren salerosgaien zirkulazioa ezagutzeko, hau da, irteera eta helmuga EAetik at dutenak, galdeketa batzuk egin dira errepide sareko hainbat tokitan eta, ondoren, datuak estrapolatu dira urte osora, beste iturri batzuetatik etorritako datuei lotzeko.

Ondoren, bildutako datuak datu basean ipini dira eta datuen irudi geografikoa egin da.

Autonomia Erkidegotik igarotzen diren zamen banaketaren azterketak erakutsi bezala, honako hauek dira salerosgai arriskutsuak garraiatzeko erabiltzen diren bide nagusiak:

- A-8, A-68 eta A-1 autobideak, haiek baitira bertatik edo kanpotik iriteten den zirkulazioaren igarobide nagusia. A-8k, Nerbioi-Ibaizabalen ezkerretatik igarotzean, hartzen ditu zirkulazio kopururik handienak: Gurutzetako gurutzagunetik 1,8 milioi tona igaro ziren 1997an.

Azpinarratu behar dugu, bestetik, A-8 eta A-68 autobideen arteko lotura BI-625 errepidean, Arrigorriaga eta Basauriren artean, gertatzen dela. Hori horrela, errepide hori da (ez autobia, ez autobidea) EAEn gehien erabiltzen dena, Erkidegoko autobide eta autobia tarte askok baino zirkulazio dentsitate handiagoa du-eta, salerosgai arriskutsuei dagokienez. Izan ere, debekaturik dago Malmasineko tuneletik lehergailuak edota gai sukoiak igarotzea. Debekatze hori, praktikan, gainerako salerosgai arriskutsuetara zabaldu da, nahiz eta ez dagoen gainerako salerosgai arriskutsu horiek tuneletik igarotzea debekatzen duen seinalerik edo arautegirik. EAeko bi autobide nagusien artean, A-8 eta A-68ren artean, alegia, lotura zuzenik ez egotea litzateke errepide horren erabilera handia azaltzen duten zioetako bat.

- Gutxiago bada ere, A-15ak ere badu zirkulazio handia, batez ere irteera eta helmuga Katalunian edo Ebroko autobidearen bidez lotzen diren beste Erkidego batzuetan duten garraioak.
- Sare Nagusiko beste bide garrantzitsu batzuetan ere, hala nola N-I (kopuru handiagoa sumatzen da Arabako tartean Gipuzkoakoan baino) eta N-622 errepideetan (ibilbide osoan), salerosgai arriskutsu asko igarotzen dira.
- Karga gutxiago dute:
 - BI-637 errepideak, A-8 autobidetik, Arrontegi zubian zehar, Nerbioi-Ibaizabalen ertzetan dauden Barakaldo eta Erandio udalerrietara salerosgaiak eramateko.
 - BI-636 errepideak, Bilbo eta Suduperen arteko bidean, Alonsotegin kimika enpresa garrantzitsu bat dago eta.
 - N-240 errepideak, salerosgai arriskutsu ugari igarotzen baita bertatik, bai Arratia haranetik, bai Arabako Lautadatik, Gojaineko poligonoetara eta A-627ra sartzeko guneetan.


Beste errepide batzuk, aldiz, ez dira bide nagusi bezala erabiltzen; baina bai tartetxo bat igarotzeko. Esaterako:

- Goragoko maila duten bi errepideren arteko loturak, A-68 eta A-8 lotzen dituen BI-625.
- Autobideetatik hur dauden udalerrietan sartzeko bideak:
 - N-634, A-8 autobidean sartzeko Galdakaon eta Eibarren dauden sarbideak.
 - BI-3748, A-8 eta Trapaga eta Urtuella lotzen dituen tokia.
 - GI-2132, N-I eta Hernaniren arteko sarbidea.
- Industrialde garrantzitsuetako sarbideak:
 - BI-3794, Petronor findegia eta A-8 lotzen dituena.
 - A-2122, Lantaronen kimika industria ugari biltzen dira eta.
 - N-644, Bilboko Portua eta A-8 lotzen dituena.

- N-639, Abanto-Zierbena eta aipaturiko N-644 lotzen dituena.
- Euskal Autonomia Erkidegoko bide saretik 1997an 287 salerosgai arriskutsu desberdin igaro direla ikusi da. II. ERANSKINEAN salerosgai horien izenen zerrenda dago, ONU zenbakia, kopurua, sailkatze eta arrisku kode eta guzti.

Datorren orrialdean EAeko bide sareko errepideak agertzen dira, hartzen dituzten salerosgai arriskutsuen kargaren arabera margoturik, baita 1997an tarte horietan igaro ziren kopuruak erakusten dituen taula ere.

Flujo anual de Total Materias Peligrosas (Tm/año) (Red viaria)



- Rutas
- Red viaria
- 0.017 - 45800.736
- 45800.736 - 189598.512
- 189598.512 - 1129540.831
- 1129540.831 - 1845821.783
- Sin datos
- Ferrocarril
- Poblaciones mayores
- Comarcas



Ondoko taulan urteko 50.000 Tm baino gehiago hartzen dituzten erre-
 pideak agertzen dira, beheranzko ordenari jarraiki. III. ERANSKINEAN,
 berriz, urteko 1.000 Tm baino gehiago hartzen dituzten errepideak ager-
 tzen dira, baita maizen garraiatzen diren 18 salerosgaiei loturiko enpre-
 sa banatzaile edo kontsumitzaileak ere.

<i>Bidea</i>	<i>Ibilbidea</i>	<i>Tm guztira</i>
A-8	BI-636 elkargunea - Gurutzeta (int. N-634 eta N-637)	1.800.000
A-8	Bilbo (Sabino Arana) - BI-636 elkargunea	1.740.000
A-68	Buia - Arrigorriaga	1.700.000
A-8	Buia - Bilbo (Sabino Arana)	1.700.000
A-8	Portugaleta - N-644 elkargunea (Santurtziko portua)	1.700.000
A-8	Gurutzeta (N-634 elkargunea eta N-637) - Portugaleta (BI-3749 elkargunea)	1.650.000
A-68	Altube (N-622 elkargunea)	1.100.000
A-8	N-644 elkargunea (Santurtziko portua) - Pobeña (N-634)	1.000.000
BI-625	Arrigorriaga (A-68 elkargunea) - Basauri (A-8)	920.000
N-644	A-8 elkargunea - Santurtziko Portua	880.000
A-8	Galdakao - Basauri	800.000
A-68	Altube - A-1 elkargunea	750.000
A-8	Zornotza - Galdakao	
A-8	Durango - Zornotza	690.000
N-639	Santurtziko portua - Zierbena	660.000
A-1	Burgoseko muga - A-68 elkargunea	630.000
A-8	Ermua - Durango	625.000
A-8	Donostia - Aiete (N-1 elkargunea)	600.000
A-8	Elgoibar - Ermua	580.000
A-8	Oiartzun - Donostia	545.000
A-8	Zarautz - Elgoibar	530.000
A-8	Donostia mendebaldea - Zarautz	515.000
A-8	Irun - Oiartzun	500.000

<i>Bidea</i>	<i>Ibilbidea</i>	<i>Tm guztira</i>
A-8	Aiete (N-1 elkargunea) - Donostia mendebaldea	500.000
N-1	GI-2132 elkargunea - A-8 (Aiete) elkargunea	470.000
A-8	Behobia - Irun	417.000
N-1	Iurre (N-622 elkargunea) - Gamarra	410.000
N-1	Andoain - GI-2132 elkargunea	385.000
A-8	Frantziako muga - Behobia	375.000
N-622	Gasteiz - Altube	330.000
N-1	A-2622 elkargunea Iurre (622 elkargunea)	290.000
A-2122	Burgoseko muga - Komunioi (A-3312 elkargunea)	258.000
N-1	Armiñón - A-2622 elkargunea	245.000
N-1	Gamarra - N-104 elkargunea	240.000
N-1	N-104 elkargunea - A-3110 elkargunea	225.000
BI-3794	A-8 elkargunea - Muskiz	220.000
A-68	A-1 elkargunea - Errioxako muga	205.000
N-1	A-3110 elkargunea - A-3020 elkargunea	205.000
N-637	Gurutzeta - Erandio Landea (BI-637 elkargunea)	190.000
N-1	A-3020 elkargunea - Nafarroako muga	170.000
A-2122	Kumunioi (A-3312 elkargunea) - Zubillaga	157.000
A-1	A-68 -N-1 elkargunea	147.000
N-1	Burgos eta Arabaren arteko muga - Armiñón	140.000
GI-2132	Hernani - GI-131 elkargunea	135.000
N-240	Gamarra - Durana	120.000
N-240	Durana - Miñao Goien	117.500
N-1	GI-130 elkargunea - Andoain	107.000
N-240	Miñao Goien - A-4016 elkargunea	103.000
A-2122	Zubillaga - Saratsu - Kaizedo	100.000
GI-131	GI-2132 elkargunea - GI-3410 elkargunea (Hernani)	100.000
N-240	4016 elkargunea - A-627 elkargunea	100.000
BI-636	Kastrexana - Sodupe	98.000

<i>Bidea</i>	<i>Ibilbidea</i>	<i>Tm guztira</i>
BI-637	Leioa - N-637 elkargunea (Erandio Landea)	90.000
BI-3749	Portugaleta (A-8 elkargunea) - Ballonti (BI-3748 elkargunea)	88.000
N-1	GI-2131 elkargunea - GI-130 elkargunea	88.000
BI-3748	Trapaga - BI-3749 elkargunea	76.000
BI-625	Basauri - Irubide (N-634)	75.000
N-240	A-627 elkargunea - A-2620 elkargunea	75.000
N-637	Erandio Landea (BI-637 elkargunea) - Asua (BI-3704 elkargunea)	72.000
N-240	Igorre - Urgoiti (A-8 elkargunea)	70.000
N-1	Int. GI-120 - int. GI-2131	70.000
GI-627	Bergara - int. N-634	65.000
N-634	Galdakao - Irubide	60.000
BI-637	Int. BI-3703 (Salsidu) - Leioa	55.000
GI-3095	Aduna - Soravilla	55.000
N-240	A-2620 - Igorre elkargunea	55.000
N-634	GI-627 elkargunea - Eibar	55.000
N-1	Nafarroako muga - GI-120 elkargunea	55.000
GI-627	GI-632 elkargunea - Bergara	53.000

Hurrengo bi tauletan maizen garraiatzen diren salerosgaiak eta kopuruak, gaika, zerrendatzen dira.

Errepidez maizen garraiatzen diren 18 salerosgaiak:

<i>ONU zk.</i>	<i>Salerosgaiaren ezaugarriak</i>	<i>Tonak 1997an</i>	<i>%</i>
1202	Fuel-olioa 2. ZK. (Gasolioa). Diesela (Gasolioa, etab.)	1.271.584	36,18
1203	Gasolinak	416.898	11,8
1830	Azido sulfurikoa	276.955	7,88
3257	Tenperatura handiko likidoak, EIZ1	250.862	7,13

<i>ONU zk.</i>	<i>Salerosgaiaren ezaugarriak</i>	<i>Tonak 1997an</i>	<i>%</i>
1073	Oxigeno likido hoztua	130.017	3,70
1824	Sodio hidroxidoa (soluzioa)	88.143	2,50
1789	Azido klorhidrikoa (soluzioa)	59.937	1,70
1977	Nitrogeno likido hoztua	53.154	1,51
1791	Hipokloritoak	42.905	1,22
1086	Binilo kloruroa	42.840	1,21
1230	Metil alkohola (metanola)	42.045	1,19
1831	Oleuma (azido sulfuriko lagungarria)	41.980	1,19
1263	Margoak (P.I.<21.C)	31.378	0,89
1956	Gas konprimitua, EIZ	26.220	0,74
3262	Metasilikato sodiko anhidroa	26.021	0,74
2067	Amonio nitratoz prestatuturiko ongarriak	22.814	0,65
1495	Sodio Kloratoa (Solidoa)	18.658	0,53
1052	Azido fluorhidriko anhidroa	18.464	0,52
	<i>Guztira</i>		<i>81,4</i>

Adierazgarria da oso antzeman diren 287 gaietatik 18k garraiatuturiko gaien %81,4 egitea eta horietatik 4k bolumen osoaren %63 izatea.

Halaber, azpimarratzekoa da errepidez garraiatuturiko gaien %36 gasolioa izatea, hau da, bere sailkapenaren barruan arrisku apala duen gai bat izatea.

Gai mota bakoitzean garraiatu diren kopuruak. Erradiaktiboak, 7. motakoak, ez dira taula honetan agertzen, hurrengo batean baizik.

<i>Mota</i>	<i>Ezaugarriak</i>	<i>Tonak/urteko</i>	<i>%</i>
1	Eztanda egiten duten gai eta objektuak	9.225	0, 26
2	Gasak	355.693	10,12
3	Gai likido sukoiak	1.887.376	53,70

<i>Mota</i>	<i>Ezaugarriak</i>	<i>Tonak/urteko</i>	<i>%</i>
4.1	Gai solido sukoiak	11.121	0,32
4.2	Berez pitz daitezkeen gaiak	11.481	0,33
4.3	Urarekin nahastuta gas sukoiak botatzen dituzten gaiak	4.687	0,13
5.1	Gai erregarriak	81.363	2,32
5.2	Peroxido organikoak	2.186	0,06
6.1	Gai toxikoak	175.632	5,00
8	Gai korrosiboak	630.963	17,95
9	Hainbat gai eta objektu arriskutsu	344.730	9, 81
	<i>Guztira</i>	<i>3.514.457</i>	<i>100,00</i>

7. motari dagokionez, isotopo erradioaktiboak erabilera desberdinetarako hornitzen da EAEn:

- Medikuntzako erabilera
- Medikuntza nuklearra (diagnostikoa eta terapia)
- Erradioterapia
- Industria erabilerak (papergintzetako neurgailuak, siderurgia, soldatze industrialak ikuskatzeko, lurren dentsitatea, etab.)
- Instalazio finkoak
- Instalazio mugikorak

Hona hemen gehien erabiltzen diren erradioisotopoak:

- Co-60: altzairuen lodiera neurtzea, lingote ontzien altzairu maila, grammagrafoak (soldatze industrialak ikuskatzeko), erradioterapia (gero eta gutxiago erabiltzen da, elektroien azeleratzaile linealek ordezkatzeko dituzte).
- Am-241: gainaldearen dentsitatea eta hezetasuna neurtzea, eraikuntzarako gaiak kontrolatzea.

- Kr-85: paperaren gramagea kontrolatzea.
- Cs-137: bero dauden tutuen lodiera neurtzea, lurren dentsitate eta hezetasuna neurtzea, asfaltoen lodiera, lingote ontzien betetze maila, eraikuntzarako gaiak kontrolatzea.
- Ni-63: biltegietako ihesak aurkitzea eta kuantifikatzea.
- Ir-192: gammagrafoak.
- Am-241: lodierak neurtzea, eraikuntzako gaiak kontrolatzean hezetasuna neurtzea.
- I-131: Tiroideak artatzea.
- I-123, Tl-201, Y-90, Sr-89: ospitaletan erabiltzen diren marraztaileak.
- H-3, Cr-51, C-1, I-125, co-57: biologia ikerketetan.

1999an zehar erradioisotopo horien 2.000 lekualdatze baino gehiago antzeman dira. Kontuan hartu behar dugu kantitate txikiak direla, kapsuletan edo homologaturiko pusketan sartzen direnak. Gainera, proba egitarau zorrotza gairiditu behar dute, hala nola erorketa askea, metatzea, uraren bidezko ihinzatzea, sastakatzea, saio termikoak eta murgiltze saioak.

2.2. Trenbidez garraiatutakoa

Salerosgai arriskutsu gehienak RENFEk garraiatzen ditu. 1997an 262.020 tona garraiatu zituen RENFEk; FEVEk, aldiz, 1.882 tona. Hurrengo taulan ikus daitekeenez, salerosgai arriskutsu gehien hartu zituen tartea Altsasu eta Irunen artekoa izan zen. FEVEri dagokionez, Basauri-Aranguren-Kantabria ibilbidetik garraiatu zen zama; Aranguren-Balmaseda ibilbidea, berriz, ez zen salerosgaiok garraiatzeko erabili.


RENFEk Mirandan duen Ekintza Kudeatzailtzak eta Herri Babeseko Zuzendaritza Nagusiak eman dituzte datuok:

Trenbidearen tarte bakoitzak hartu ditu zama tonak:

<i>Ibilbidea</i>	<i>Tonak/urteko</i>
Altsasu - Zumarraga	156.749
Zumarraga - Beasain	156.749
Beasain - Tolosa	156.749
Tolosa - Billabona	156.749
Billabona - Andoain	156.749
Andoain - Hernani	156.749
Hernani - Donostia	156.749
Donostia - Erreterria	156.749
Erreterria - Irun	156.749
Miranda - Jundiz	106.486
Jundiz - Altsasu	100.411
Arrigorriaga - Bilbo	96.253
Miranda - Arrigorriaga	96.029
Bilbo - Barakaldo	80.321
Barakaldo - Santurtzi	41.960
Ariz - Aranguren	1.881,91
Aranguren - Kantabria	1.881,91
Aranguren - Balmaseda	0

Hurrengo orrialdean Erkidegoaren mapa bat agertzen da eta bertan, margo desberdinez azpimarraturik, aipaturiko trenbideek hartzen duten salerosgai zama osoa erakusten da.

Flujo anual de Total Materias Peligrosas (Tm/año) (Ferrocarriil)



EAEko trenbideen saretik 127 gai arriskutsu desberdin ibili dira 1997an. Gaion izenak azaltzen dira II. ERANSKINEAN. Hurrengo tauletan maizen garraiatu diren 20 gaiak zerrendatu ditugu, baita gai guztiak moten arabera sailkatu ere.

Trenbidez maizen garraiatu diren 20 salerosgaiak:

Mota	Salerosgaiaren ezaugarriak	Tonak/ 1997. urtea	%
1086	Binilo kloruroa	69.036	26,16
1830	Azido sulfurikoa	54.044	20,48
2067	Amonio nitratoz prestatuturiko ongarriak	42.165	15,98
2785	4-Tiopentanal	14.060	5,33
1824	Sodio hidroxidoa (soluzioa)	10.622	4,02
1202	Fuel-olioa 2. zk. (gasolioa), diesela (gasolioa, etab.)	10.247	3,88
2215	Anhidrido maleikoa	8.506	3,22
1017	Kloroa	5.900	2,24
1965	Hidrokarburu gaseosoen nahasketa	5.862	2, 22
1831	Oleuma (azido sulfuriko lurringarria)	4.971	1, 88
1131	Sulfuro karbonoa	4.378	1,66
1495	Sodio kloratoa (solidoa)	3.947	1,50
1005	Amoniakoa	2.842	1,08
1052	Azido fluorhidriko anhidroa	2.575	0,98
2795	Elektrolito likido alkalinoaren metatzaile elektrikoak	2.395	0,91
2023	Epiklorhidrina	1.619	0,61
2015	Egonkorturiko hidrogeno peroxidoa	1.568	0, 59
1078	Gas hoztaileak	1.159	0,44
3261	Solido ez organiko azidoa NEOP	966	0,37
2796	Azido sulfurikoa, %51tik beheragoko kontzentrazioa duena, baterietarako azido elektrolitoa	863	0, 33
		<i>Guztira</i>	<i>93,88</i>

Kopurua dela-eta honako hauek azpimarratu beharko genituzke: binilo kloruroa, 69.036 Tm; azido sulfurikoa, 54.044 Tm; eta amonio nitratoz presaturiko ongarriak, 42.165 Tm. III. ERANSKINEAN gai hauek maizen egiten dituzten ibilbideak eta horiekin zer ikusirik duten enpresak agertzen dira.

Aipagarria da, bestalde, trenbidez garraiatzen diren 127 gaietatik 20k bolumen osoaren %94 hartzen dutela, baita haietako 3k bolumen osoaren %62 hartzen dutela ere.

Trenbidez garraiatzen diren salerosgaiak, RIDen ezarritako moten arabera:

Mota	Salerosgaiaren ezaugarriak	Tonak/ Urteko	%
2	Gasak	87.592	33,19
3	Gai likido sukoiak	18.685	7,08
4.1	Gai solido sukoiak	1.363	0,5
4.2	Berez pitz daitezkeen gaiak	172	0,06
4.3	Urarekin nahastuta gas sukoiak botatzen dituzten gaiak	165	0,06
5.1	Gai erregarriak	48.480	18,37
5.2	Peroxido organikoak	16	0,006
6.1	Gai toxikoak	18.393	6,97
8	Gai korrosiboak	87.774	33,26
9	Hainbat gai eta objektu arriskutsu	1261	0,004

2.3. Istripuak

EAEko lurreko bideetatik, salerosgai arriskutsuak eramanez, 180.000 ibilgailu baino gehiago ibiltzen dira urteko. Kopuru handia bada ere, istripu indizea askoz txikiagoa da gure komunikazio saretik ibiltzen diren beste ibilgailu mota batzuenari buruz.

Horrela, 1997 eta 1998. urteetan 113 eta 143 istripu gertatu dira, hurrenez hurren, ondoko taulan erakusten denez. Istripuen %91n, hala ere,

garraiaturiko gaiak ez du kalterik hartu, ezta edukiontzia berak ere; hau da, ibilgailuak ezin du aurrera jarraitu, baina ez du zertan zirkulazioa oztopatu.

Urtea	EG1/TG1 ¹	EG2/TG2 ²	EG3/TG3 ³	EG4/TG4 ⁴	EG5/TG5 ⁵	GUZTIRA
1997	95/4	3/0	4/7	0/0	0/0	113
1998	128/7	3/0	3/0	2/0	0/0	143
<i>Guztira</i>	<i>234</i>	<i>6</i>	<i>14</i>	<i>2</i>	<i>0</i>	<i>256</i>

Edukiontzia edo garraiatzen zen zamak kalteak izan dituen istripuei dagokienez (2. mailatik 5.era), ondoko taulan erakusten diren datuak azter daitezke.

Data	Lurraldea	Errepidea /Geltokia	ONU zk.	Gaia	Mota (1.5)	Pop. ⁶	Hustea ⁷
97/01/23	Bizkaia	BI-3739	1202	Gasolioa	3	Ez	Ez
97/01/29	Araba	A-68	2929	Likido toxikoa, sukoa, organikoa, e.i.z.	3	Ez	Ez
97/03/02	Bizkaia	N-639	1965	Hidrokarburu gaseoso likidotuen nahasketa	3	Ez	Ez
97/05/12	Araba	A-3012	1978	Propanoa	2	Ez	Ez
97/10/13	Gipuzkoa	N-1	1202	Gasolioa	2	Ez	Ez
97/12/17	Araba	A-3136	1202	Gasolioa	2	Ez	Ez
97/03/20	Gipuzkoa	Irun	2055	Estirenoa	3	Ez	Ez
97/04/09	Bizkaia	Santurtziko portua	2929	Likido toxiko sukoi organikoa, e.i.z.	3	Ez	Ez
97/07/10	Bizkaia	Santurtziko portua	1991	Kloropreno inhibitua	3	Ez	Ez
97/07/27	Bizkaia	Santurtziko portua	1307	Xilenoa	2	Ez	Ez
97/10/08	Bizkaia	Casilla plaza	1202	Gasolioa	3	Ez	Ez

¹ Ibilgailuak ezin jarrai dezake. Edukia eta edukiontzia kalterik gabe.

² Kalteak edukiontzian, baina ez da edukia isuri, ezta irten ere.

³ Kalteak edukiontzian eta edukia isuri edo irten da.

⁴ Kalteak edo sua edukiontzian eta edukia garretan irten da.

⁵ Edukiak eztanda egin eta edukiontzia txikitu du.

⁶ Eragin zion populazioari?

⁷ Populazioz hustu behar izan zen?

Data	Lurraldea	Errepidea /Geltokia	ONU zk.	Gaia	Mota (1.5)	Pop. ⁶	Hustea ⁷
97/10/18	Bizkaia	Burtzeña	1831	Oleuma	3	Ez	Ez
97/11/09	Gipuzkoa	Irun	3092	1-Metoxia-2-propanola	3	Ez	Ez
98/02/10	Araba	Hirigunea	1202	Gasolioa	3	Ez	Ez
98/06/06	Bizkaia	A-8	1202	Gasolioa	4	Ez	Ez
98/07/27	Bizkaia	N-639	1965	Hidrokarburo gaseoso likidotuen nahasketa	2	Ez	Ez
98/09/01	Bizkaia	BI-3794	1203	Gasolina	2	Ez	Ez
98/09/11	Gipuzkoa	GI-627	1965	Hidrokarburo gaseoso likidotuen nahasketa	5	Bai	Bai
98/09/11	Bizkaia	BI-625	1202	Gasolioa - gasolina	2	Ez	Ez
98/09/17	Bizkaia	A-8	1203	Gasolina	3	Ez	Ez
98/12/15	Araba	A-2122	2913	Gai erradiaktiboak, aza- letik kutsaturiko objektuak	3	Ez	Ez

3. ARRISKU HANDIKO ALDEAK

Oro har, salerosgai hauek nahitaez igaro behar dute egokiak ez diren tarteetatik eta, gainera, ezin eskain daitezke tarte horiek erabiltzea saihestuko luketen alternatibak. Izan ere, bi eragilek behartzen dute tarte horiek erabiltzera: EAEn orografia bereziak eta salerosgai arriskutsu horiek sortu edo erabiltzen dituzten enpresak barreiaturik egoteak (askotan enpresa horietara heltzeko nahitaez erabili behar dira oinarritzko, eskualdeko edo tokiko sareak).

Banan-banan harturik, lurralde bakoitzak bere ezaugarriak dituela ikus dezakegu:

- Arabak hartzen du salerosgai arriskutsuen trafikorik txikiena EAEn; hala ere, lau bide nagusitan biltzen da: A-68, N-I, N-240 eta N-622

Istripu indizerik handiena bide nagusietara maila apalagoko bi-deetatik sartzean gertatzen da, hala nola A-625etik A-68ra Laudio-ko ordainlekuan.

Objektu zaugarriei dagokienez, batez ere akuiferoei eta lurpeko urei erasaten diete, Urrunagako urtegiaren zaugarritasuna ahaztu barik, salerosgai ugari igarotzen baitira N-240ko zubitik.

- Bizkaiak hartzen du salerosgai arriskutsuen trafikorik handiena, bai Lurraldeko enpresetan sortu edo erabiltzen direnengatik, bai A-8 eta A-68ren arteko lotura dela-eta Lurraldea igarotzen dutenengatik.

Mugimendu gehien izaten duen aldea, zalantzarik gabe, Nerbioi-lbaizabalen Ezkerraldea da, Arrontegi zubiaren eta A-68ko sarbidearen artekoa bereziki. Tartez tarte begiratzen badugu, hauxe da zama gehien hartzen duen EAEko bide tarte. Gainera, populazio handiak biltzen dira haren inguruan.

- Gipuzkoa dago Bizkaiak eta Arabak hartzen dituzten kopuruen artean. Bere inguruari erreparatzen badiogu ezin aipa dezakegu erasan jakinik; izan ere populazioa eta akuiferoak agertzen dira hanhor-hemen alderdirik ahulen gisa.

Agian, Gipuzkoak duen ezaugarriak aipagarriena bide alternatiborik ez izatea da, Lurralde honetako enpresak komunikazio bide bakarra duten Deba, Urola eta Orioko bailaretan kokaturik baitaude.

Trenbidez garraiatzen diren salerosgai arriskutsuek dakarten arriskuari gagozkiolarik, lortu diren datuen arabera, Bilbo eta Santurtziren arteko ibilbidea da kilometroko arrisku indizerik handiena duena, bertan bazten baitira istripuak gertatzeko aukera indizerik handienak eta salerosgai arriskutsuen zama handiak.

Azpitarragarria da oso, bestalde, zaugarritasun indizerik handiena duen tarte arrisku gutxikoa dela, bertan mugitzen den zama Autonomia Erkidegoko txikienetakoa baita: Arizetik Arangurenera doan tarte.

Hori horrela, *EAE n garraiatzen diren salerosgai arriskutsuen joan-etorriari buruzko mapa* delakoak honako iradokizun hauek egiten ditu:

- Penintsulako erdialdetik Frantziara doan trafikoa A-8 eta A-68 autobideetatik eramateko gomendatzen da.
- Donostia - Gasteiz bidea N-letik egiteko aukera iradokitzen dugu, Etxegarate mendateko bidea hobetzeko lanak amaitu ostean, bi autobideen arteko BI-625 lotura husteko asmoz.
- A-68 eta A-8ren arteko bide loturaren segurtasunaren egoera hobetzea.
- Eztanda egiteko arriskurik ez duten edo sukoiak ez diren salerosgai arriskutsuak Malmasinetik igarotzea baimentzen duten seinaleak nabarmendu behar dira, harturiko erabaki hori betetzearen alde onak azpimarratuz, horrela bi autobideak lotzen dituen BI-625 errepidea husten baita.
- Egoki deritzogu Donostiatik edo inguru horretatik Irunerantz, Zaragozarantz edo Bartzelonarantz doazen salerosgaiak A-15etik desbideratzeari.
- Komenigarri deritzo zenbait mendatetan zirkulazio hori debekatzeari, ibilbide alternatiboak erabil daitezkeelakoan. Esaterako, jarraian adierazten diren enklabeak, edota bigarren mailako beste batzuk:
 - Azazetako mendatea Opakuakoaren ordez.
 - A-68 Herrerako mendatearen ordez.
 - Kanpazarreko mendatea Elgetako mendatearen ordez
 - A-68 autobidea Barazar, Urkiola eta Urduñako mendateen ordez.
 - N-I eta A-15 Azpirotz eta Lizarrustiko mendateen ordez.
- Elurteak edo izozteak gertatzen diren zenbait bide tartetan, salerosgai arriskutsuen zirkulazioa murriztuko luketen seinale birakariak edo arkupe argidunak jartzeko gomendatzen da, hala nola A-68k Araban duen tartean, N-622n, Azazetako mendatean edo A-15ean.
- Azpimarratu nahi ditugu Errepideen Plan Nagusian azaltzen diren lanak eta Lurraldeetako Plan Sektorialekoak, batez ere honako hauei dagokienez:

- Beste lotune batzuk eraikitzea: BI-632 errepidean, Elorrio eta N-634 errepidearen artean, Matiena zeharkatu barik.
- Populaziogunerik nagusietako saihezbideak.
- Errepide ibilbide berriak eraikitzea: Debarroako autobidea, Txorie-rriko lasterbidea (ezinbestekoa A-8 autobideak, Arrontegiren eta A-68ko sarbidearen arteko arriskua eta BI-625eko lotunekoak saihesteko).
- Zabaltzeak: Etxegarateko mendatea.

Lanean aipaturiko neurriak osatzeko beste hauek gomendatzen ditugu:

- Saihezbideak dituzten herrietan debekatzea salerosgai arriskutsuak daramatzaten ibilgailuak herri barrutik igarotzea.
- Autobideari lehentasuna ematea, ibilbide bera duen bide zabaldu alternatibo bat izan ezean.
- Debekatzea ibilgailu astunak aurreratzea ibilbide alternatiborik ez duten tuneletan.
- Salerosgai arriskutsuen joan-etorriei buruzko datuak aintzat hartzea azpiegituretan erabili beharreko diruak planifikatzerakoan.

Bide murriztu batetik igarotzea ezinbestekoa denean, baimen bereziak emanez bideratu behar dira. Baimen horiek ezarritako murrizketa errespetatzeko ezintasuna arrazoitu behar dute.

Adierazi diren bide seinaleak seinalizatzeko egitasmo bezala garatu behar dira. Erabili beharreko eskalak, bestalde, seinale horien neurriak eta materialak zein kokalekua zehazteko aukera eman behar du.

Euskal Autonomia Erkidegoko bide sareko gainerako tartetean hartu behar diren berariazko neurriak Garraioak eta Herri Obrak Sailak egin duen *EAE n garraiatzen diren salerosgai arriskutsuen joan-etorriari buruzko mapa* delakoan begira daitezke, IV. Liburukian, hain zuzen ere: Bideratze plana.

3.1. Ondorioak

Istripu baten ondorioak istripuan zerikusirik izan duten hainbat alderdiri lotuta daude, hala nola gaiari, kopuruari, gaiaren egoerari (presio, tenperatura, hermetikotasun), inguruaren zaurgarritasunari (populazioa, lurzoru, inguru hidrikoa) eta eguraldiari. Kalte handia eragin dezaketen gertaera arriskutsuen handitasunari dagokionez, Sektore Kimikorako Plan Bereziak Egiteko eta Homologatzeko Oinarrizko Gidabidean agertzen diren atalase balioak aukera daitezke.

Ondorio horiek balioesteko, Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzak argitaratu dituen *Gai arriskutsuekin gertatzen diren istripuetan esku hartzeko fitxak* erabili ahal izango dira kontsulta tresna bezala. Fitxok paperean eta CD-ROMen argitaratu dira (agiri honi CD-ROM euskarrian argitaratuko fitxak gehitu zaizkio -V. ERANSKINA-).

Fitxotan, gaiak, ihes edo isurtzen denean edo sutea edo eztanda gertatzeko arriskua dagoenean, zelan jokatzeko duen erakusten da, baita kalteak murrizteko zer-nolako neurriak hartu behar diren ere. Era berean, gaiari loturiko arriskuak ere azter daitezke, gaiaren lurrunkortasuna, lurrunek dentsitatearen arabera duten jokabide edota zenbait gairekin duten jokabidea, hala nola urarekin, airearekin, argiarekin, hezetasunarekin, zama elektros-tatikoarekin, erregaiekin edota deskonposatze termikoarekin. Hori horrela, istripuarekin zerikusia duen gaiak toxikotasun edo lurrunkortasun maila altua duen kasuetan, babes distantziak proposatzen dira, isurtzearen handitasunaren arabera. Edozelan ere, populazioa eta parte hartzen duten bitartekoak babesteko erabili daitezkeen neurriei buruzko orientabideak dira.

Beharrezkoa izanez gero, honako fitxok ere erabili daitezke:

- *Errepidez garraiatutako salerosgai arriskutsuekin gertaturiko istripuek sortutako larritasuneko egoeretan parte hartu behar duten zerbitzuen jokabiderako fitxak*, 1999ko irailaren 21ko aginduaren bidez onartuak (1999ko urriaren 8ko BOE).
- *Salerosgai arriskutsuak garraiatzeko segurtasun fitxa*. Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzak argitaratua, 1996.

- *Larritasunezko egoeretan erantzuteko gida iparramerikarra*, 1996. US Departmet of Transportation-ek argitaratua (DOT fitxak).
- *Salerosgai arriskutsuekin gertaturiko istripuetan parte hartzeko fitxak*. Herri Babeserako Zuzendaritzak argitaratua. RENFE, 1991.

Inguru hidrikoari eragindako eraspenari dagokionez, azaleko urak eta lur azpiko urak bereizi behar ditugu.

Lehenengoei dagokienez, EAEko urguneei buruzko zerrendan erregistraturiko azaleko ur hartunea eta ureztatzeko urmaelak ditugu. Hartune hauei urrun gertaturiko isurketek ere eragin diezaieketenez, baldin eta hartunearen goiko uretan gertatzen bada, VI. ERANSKINEAN 1:150.000 eskalako mapa bat agertzen da, azaleko hartuneak eta ureztatzeko urmaelak erakusten dituena. Gero, hartune bakoitzaren ezaugarri garrantzitsuenak adierazten dira: udalerria, erabilera, jabea, etab. Urtegiei dagokienez, berdin erabil daitezke argibideak (VI. ERANSKINA), lehen adierazitako hartuneetako batzuk urtegiei loturik daudela ahaztu barik.

Lur azpiko urei dagokienez, unitate hidrogeologikoetan elkartzen dira akuiferoak eta horrela definitzen dira: akuifero multzo bat, independenteak edo erlazioatuak, biltzen duen geografia eremua dira, eta ikertzeko edo baliabidea kudeatzeko unitate praktikoa osatzen dute. Kutsadurari buruz duten zaugarritasuna hainbat arrazoik sortua dator, hala nola inguruan kutsadurak mugitzeko dituen baldintzek, zoruaren irazkortasunak, isuriaren kokalekuak, aldapa izateak, eta abarrek. Alderdi horiek kontuan hartuta, lur azpiko uren zaugarritasunari buruzko mapa bat egin dute. Bertan zaugarritasun maila desberdinak egokitzen dira: oso handia, handia, ertaina, txikia, oso txikia, hutsa. Mapa hori Ingurugiro Sailburuordetzak egindako *EA-Eko ingurugiroari buruzko kartografia sistema* delakoan begira daiteke, CD-ROM euskarrian.


Gai kutsatzaileek zoruan eragin ditzaketen ondorioak murrizteko, isuri den gaia geldiarazi behar da eta berehala kendu, nola ponpatuz hala zurgatuz. Ekintza hori atzeratuko balitz, isuri den gaia estali beharko genuke (baldin eta solidoa bada), plastiko edo bateragarri den gai bat era-

biliz, gai kutsatzailea zabal ez dadin edo euriak iraztea azkartu ez dezan. Azkenik, kutsatu den lurra kendu egin behar da eta hondakin toxikoak eta arriskutsuak aztertu beharko ditu enpresa kudeatzaile baimendun batek. VII. ERANSKINEAN Ingurugiro Sailburuordetzako Ingurugiroaren Kalitatearen Zuzendaritzako Hondakin Toxiko eta Arriskutsuen zerbitzuak enpresa horiei buruz egin duen zerrenda agertzen da.

4. PLANAREN EGITURA ETA ANTOLAKUNTZA

Plan hau antolakuntza baliabide orokorra da, errepidez eta trenbidez garraiatzen diren salerosgai arriskutsuekiko istripu arriskuari erantzun ahal izateko. Helburu horretarako jarduteko arau eta prozedura multzo bat egituratu da, larrialdi horietan harrapatu rik gelditzen diren pertsoneri, horien ondasunei eta guztion ondareari ahalik eta babesik handiena emateko.

Plan honen zuzendaritza eta ekintzetarako egitura Euskadiko Herri Babeseko Planak (LABI) ezarritakoan oinarritzen dira, honako egituraren arabera:



4.1. Zuzendaria

Herrizaingo sailburua da Errepidez eta Trenbidez Garraiatzen diren Sailerogai Arriskutsuekiko Istripu Arriskuari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Babeseko Planaren zuzendaria eta koordinatzailea, Plana indarrean jartzen den larritasunezko egoera guztietan, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen (LKL) 21. artikulua ezarritakoari kalterik eragin gabe.

Plan Berezi honen Zuzendaritzak Aholku Batzorde baten laguntza izango du; beste alde batetik, zuzendaritza zuzendariak egikaritu du, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen 19. artikulua ematen dizkion eskurantzia eta ahalekin, dekretaturiko larrialdiaren larritasunaren heinean.

Planaren zuzendariaren funtsezko eginkizunak honako hauek dira:

- a) Aholku Batzordeko kideak, ekintza taldeetako arduradunak eta aginte postu aurreratuetakoko arduradunak izendatzea,
- b) Aholku batzordea, garrantziaren arabera osorik edo atal bat, eta informazio kabinetea biltzeko deia egitea,
- c) Plana abiaraztea eta haren aplikazio formala erabakitzea,
- d) Plan honetan ezartzen diren larrialdi egoerak aldarrikatzea,
- e) Egoera bakoitzean antolaketa egiturako zein zati abiarazi behar den erabakitzea,
- f) Pertsonen eta ondasunen kalteak sor diezazkieketen gertakariak eta bide sarearen ohiko funtzionamenduaren aldatze larria zein agintariri jakinarazi behar zaizkien zehaztea,
- g) Aholku batzordearen laguntzaz, une bakoitzean larrialdiei aurre egiteko egokienak diren jarduerak agintzea eta biztanleak, ingurugiroa, ondasunak eta larrialdian parte hartzen duten pertsonak babesteko neurriak eta ibilgailuen trafikoa errazteko neurriak aplikatzea,
- h) Larrialdiarekin zerikusia duten pertsona publiko zein pribatuen jarduera guztiak koordinatzea,

- i) Sailburuak berak edo, eskuordetuta, haren agenteek, agindu orokor edo zehatzak ematea; eta behar izanez gero, neurri hertsakorak ere bai, egoeraren heineko neurriak betiere,
- j) Bai Planaren Zuzendaritzak propio aurreikusten dituen komunikabideen bitartez, bai gizarte komunikabideen bitartez larrialdiak dirauen bitartean biztanleari eman beharreko informazioa zehaztea eta koordinatzea,
- k) Errepidez eta Trenbidez Garraiatutako Salerosgai Arriskutsuekiko Istripuei buruzko Estatuko Planarekiko lotura eta informazioa bermatzea,
- l) Planaren ezarpena, eraginkortasuna eta eguneratzea ziurtatzea,
- m) Larrialdiaren amaiera eta normaltasunerako itzulera erabakitzea. Horrek Plana geldiaraztea dakar, eta larrialdian erabilitako bitarteko eta baliabideak desmobilizatzea, helburuak lortu eta gero.

Herrizaingo Sailburuaren zuzendaritzari eman behar zaio lehentasuna, edozein lurralde agintari publikoren eta Autonomia Erkidegoko gainerako planen zuzendari eta koordinatzaileen zuzentze funtzioen gainetik. Gainera, zuzendaritza horri dagokio gainerako agintarien eta planen zuzendarien eskumenen betetze lanak koordinatzea.

Aurreko paragrafoan ezarritakoari kalterik eragin gabe, premia handiko egoeretan, Herrizaingo Sailburuak edo Larrialdiei Aurregiteko Zuzendariak ere abiarazi ahal izango dute plana, eta ahalik eta arinen jakinaraziko diote Herrizaingo Sailari.

4.2. Zuzendaritzako Batzordea

3. egoeran zehazturiko inguruabarrak gertatzen direnean eta Planaren Zuzendariak horretara eskatzen duenean, Zuzendaritzako Batzordea eratuko da; beraren osakideak hauexek izango dira: Herrizaingo sailburuaren ordezkaria eta Barne Ministroaren ordezkaria.

4.3. Aholku Batzordea

Aldarrikaturiko egoeraren arabera, Planaren Zuzendariak, aholkua izateko eta gorabeheren egoerak eta larrialdiaren bilakaera aztertzeko, Aholku Batzordea bilduko du.

Batzorde honetako kideak honako hauek izango dira:

a) Herrizaingo Saila

- Herrizaingo sailburuordea,
- Segurtasun sailburuordea,
- Larrialdiei Aurregiteko zuzendaria,
- Trafiko zuzendaria.

b) Industria, Merkataritza eta Turismo Saila

- Industria Administrazioarako zuzendaria

c) Osasun Saila

- Osasun Publikorako zuzendaria
- Larrialdietarako Osakidetzako zuzendaria

d) Garraio eta Herrilan Saila

- Garraio zuzendaria
- Uren zuzendaria

e) Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila

- Ingurugiroaren Kalitatearen zuzendaria

f) Zerikusia duten Aldundiak

- Lehendakaritzako Diputatua (Arabako Ahaldun Nagusiaren Idazkari Nagusia, gorabehera Lurralde Historiko horretan gertatzen bada).
- Herrilanen eta garraioen ardura duen Diputatua.

- g) Zerikusia duten Udalak
 - Alkateak
- h) Estatuaren Administrazioa
 - Gobernuak Lurralde Historiko bakoitzean duen ordezkariordea.
- i) Ekintza Taldeen buruak eta Herrizaingo Sailburuak deitzen dituen beste guztiak, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Babeseko Batzordeko kideak edota beste batzuk, baldin eta bertan egotea beharrezkotzat jotzen bada. Larrialdian zerikusia duen gaia 7. motatakoa denean (erradioaktiboa), Segurtasun Nuklearrerako Kontseilua-ren ordezkari batek parte hartzeko eskatuko da.

4.4. Informazio Kabinetea

Informazio kabinetea zuzenean planaren zuzendaritzaren menpean dago eta Ekintzak Koordinatzeko Zentroan (EKZ) egongo da kokaturik. Kabinete horrek bakarrik izango du informazio ofiziala emateko baimena, eta bere eginkizunak honakoak izango dira:

- a) Istripuari eta bilakaerari buruzko informazioa jasotzea,
- b) Zuzendariak emandako aginduak, manuak eta gomendioak komunikabideen bidez hedatzea,
- c) Larrialdiari buruzko informazio orokorra zentralizatzea, koordinatzea eta prestatzea, eta gizarte komunikabideen esku jartzea,
- d) Larrialdiari buruzko informazioa ematea hori eskatzen duten erakundeei,
- e) Kalteak izan dituzten herritarren senideei informazio pertsonala ematea.

Informazio bulegoaren erantzukizuna Herrizaingo Saileko Sailburua-ren Kabinetezko zuzendariak du bere gain.

4.5. EKZ (Ekintzak Koordinatzeko Zentroa)

4.5.1. Definizioa eta eginkizunak

Ekintzak koordinatzeko zentroan (EKZ) Planari dagozkion ekintza guztiak zuzendu eta koordinatzen dira. Planaren zuzendariaren aginte postua da, eta hori dela eta, beharrezko gaitasuna eta tresneria izan behar ditu, ondorengoetarako: informazioa, komunikatu, koordinatu eta zentralizatzeko, hain zuzen ere larrialdiaren egoera zein den jakiteko, eta hartu beharreko neurriei buruzko erabakien berri emateko. Era berean, planaren zuzendaria zuzendaritza edo kontrol lanetan diharduten beste zentro batzuekin zuzeneko harremanak izan beharko ditu.

Era berean, Ekintzak Koordinatzeko Zentroaren azpiegiturak egokia izan beharko du beste eginkizun hauetarako:

- a) Informazio zentro iraunkorra izatea; horretarako, EKZk bere esku eduki behar dituzte hidrometeorologiari buruzko datuak jasotzeko terminalak eta gai arriskutsuei eta horiek sortzen dituzten lekuei buruzko informazioa, bai eta komunikazio bideen egoerari buruzko informazioa ere, arrisku egoera etengabe balioestekorik izan dezaten.
- b) Ekintzak jaso eta igortzeko zentroa izatea, eta beharrezkoak diren informazioko eta datu baseko sistema guztiak kudeatzen dituzten zentroak izatea.
- c) Zuzendariari laguntzea erabakiak hartzerakoan eta aginduak jakinarazi nahiz gauzatzeko bidean. Horretarako, larrialdiari buruz jasotako informazioa prozesatu egiten dute.
- d) Gobernuaren Ordezkaritzari jakinarazpena igortzea (eredua Plan honen X. ERANSKINEAN ikus daiteke).

4.5.2. EKBZren sorrera (Ekintzen Koordinazio Bateraturako Zentroa)

Behar izanez gero Ekintzak Koordinatzeko Zentroa (EKZ) Ekintzen Koordinazio Bateraturako Zentro (EKBZ) bilaka daiteke, bertara Estatuko

administrazioko buruak biltzen direlarik, bai larrialdiak zuzendu eta koordinatzeko, bai ardura eskuordetzeko, erkidegoz gaindiko interesa aldarrikatzen den kasuetan.

EKZ kokatzen den toki berean kokatuko da Ekintzen Koordinazio Baturaturako Zentroa, eta Planaren Zuzendariak eskatu bezain laster hasiko da dagozkion lanak egiten edota erkidegoz gaindiko interesa aldarrikatzen den guztietan.

EKBZn Zuzendaritza Batzordea, Aholku Batzordea eta Informazio Kabinetea kokatzen dira.

4.5.3. Kokalekua

Herrizaingo Saileko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroetan (SOS Deiak) kokatuko da EKBZ, eta haien azpiegitura erabiliko da dagokion lurraldean gertatzen diren larrialdiak koordinatzeko.

Larrialdia zein den kontuan izanik, zuzendariaren iritziz larrialdiak kudeatzeko egokiena den EKBZn bilduko da planaren zuzendaria eta zuzendaritzako egitura. Zentro hori SOS-DEIAKen instalazioetan eratzen ez bada, EKBZk beste zuzendaritza zentroeiei informazioa helarazteko sistemetako lotune eta luzapenak izan beharko ditu, Planaren zuzendariak zentro horietatik jarduerak zuzendu eta koordinatu ahal izan ditzan.

4.6. Aginte Postu Aurreratua

Larrialdiaren izaera eta larritasuna nolakoa den ikusita, Plan honen zuzendariak aginte postu aurreratu bat (APA) ezarri ahal izango du. Hortik Ekintza Taldeek larrialdia gertatu den tokian egindako lanak koordinatuko dira. Ekintza Taldeetako buruek eta helburuak lortzeko ezinbestekoak diren beste erakundeetako buru edo arduradunek osatzen dituzte APAk.

Aginte Postu Aurreratuen helburua da larrialdiaren tokian esku hartzen duten bitartekoen eta baliabideen jarduerak zuzentzea eta koordinatzea, planaren zuzendariak emandako jarraibideen arabera.

Plan honen zuzendariak zehazten duena izango da APAren zuzendaria. Besterik adierazi ezean, istripuaren berri ematean abiarazi den ekin-tza taktikaren zuzendariak beteko du funtzio hori.

4.7. Ekintza Taldeak

Larrialdiaren hasieratik bertatik esku hartzen duten zerbitzu eta per-sonen multzoei deritze ekintza taldeak. Hau da, larrialdia dela-eta plan honetan ezarritako babes jarduerak, parte hartzea, sorospen jarduerak edota konponketak elkarlanean betetzen dituztenei.

Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Babeseko Lurralde Planean oharrematen diren larrialdi mota guztietan jarduten duten ohiko ekintza zerbitzuak dira Ekintza Taldeak antolatzeke oinarria.

Edozein administratziotako langileek nahiz zuzenean istripuaren to-kian esku hartzen duten herritarrek lan egingo dute Plan honetan erutzen diren Ekintza Taldeetan.

Bost ekintza talde aurreikusten dira:

4.7.1. Esku hartzeke taldea

Talde honen egitekoa da larrialdiaren ondorioak ezabatzeke, gutxitze-ke edo kontrolatzeke hartzen diren neurriak betetzea, larrialdi hori sorta-razten duten kausen aurka zuzenean borrokatuz eta baita larrialdiaren garapena edo hedapena errazten duten egitateei eraginez ere.

Honako eginkizunak ditu:

- a) Ezbeharraren ondorioak nahiz arriskuaren kausa kontrolatzea, mu-rriztea edo neutralizatzea.
- b) Biztanleria babesteko neurriak hartzeke beste taldeekin elkarlane-an aritzea.
- c) Zerikusia duen gaia lekualdatzeke lanak egitea, lekualdatzeke be-harra ikusten denean, eta hori egiten den bitartean aurrea hartze-ke beharrezkotzat jotzen diren neurriak hartzea.

- d) Istriputik eratorritako arriskuak ezagutu eta balioestea.
- e) Esku hartzeko eremuaren mugak proposatzea.
- f) Larrialdiak kontrolpean izan ostean, arrisku ezkuak zaintzea.
- g) Komunikazioen azpiegituran behar diren oinarritzko segurtasun baldintzak berriz ezartzea.
- h) APAko zuzendariaren bidez, Planaren Zuzendaritzari egin beharreko eragiketen arriskuaren, kalteen eta bideragarritasunaren berri ematea.

Honako zerbitzu hauek osatzen dute Esku Hartzeko Taldea, baldin eta Talde horrentzat zehaztu diren oinarritzko eginkizun batzuk egiten badi-tuzte:

- a) Sua Itzaltzeko eta Salbamendurako Zerbitzuak, eta IV. ERANSKI-NEKO inbentarioan agertzen diren baliabideak izango dituzte.
- b) Zerikusia duen gaia garraiatzen duen enpresa, sortu duen enpresa edo gai hori hartu behar duen enpresa.
- c) FEIQUE, RENFE eta Herri Babeserako Zuzendaritza Nagusiaren artean loturiko hitzarmenetan zehazten diren enpresa laguntzaileak.
- d) Beste enpresa garraiolari batzuk, VIII. ERANSKINEAN begira daitezke baliabideak.
- e) Hondakin Toxiko eta Arriskutsuen Kudeatzaileak, VII. ERANSKINEAN zerrendaturikoak.
- f) Tona kopuru handietarako garabi zerbitzuek ere parte hartuko dute Ekintza Taldean.
- g) Mirandako Ekintza Kudeatzailearen Bulegoaren Herri Babeserako eta Zirkulazioko Segurtasunerako Zerbitzua, IV. ERANSKINEAN zehazturiko bitartekoak dauzkana.
- h) Foru Aldundietako Herrilanen zerbitzuak, Autobideak eta garbiketa industrialak.

4.7.2. Osasun Taldea

Talde honen eragina da salerosgai arriskutsuekin gertaturiko istripu batek harrapatutakoei osasun laguntza ematea, harik eta ospitale batera iristen diren arte; halaber, osasun publikoko babes neurriak eta aurreneurriak betetzea dagokio.

Bere eginkizunak honako hauek dira:

- a) Esku hartzeko eremuan zauritu direnei premiazko osasun laguntza ematea.
- b) Zaurituak sailkatu, egonkortu eta istripu eremutik ateratzea, baldin eta horren beharrea badaude.
- c) Zaurituak erietxeetara eramateko garraioa koordinatzea eta zaurituak jasotzeko erietxeek duten azpiegitura antolatzea.
- d) Hildakoak identifikatzea, aginpidea duten agintari judizial eta polizialekin batera jardunez, eta beste biktimak eta zaurituak ere identifikatzea.
- e) Sorospen eremua eta baseak zehaztea, Logistika Taldearekin batera.
- f) Larrialdiaren eraginez sorturiko osasun baldintzak zein diren neuritzea eta kontrolatzea. Larrialdia kontrolpean eduki eta gero, Osasun publikoari eragiten dioten arrisku ezkutuak zaintzea.
- g) Jazo litezkeen gertaera arriskutsuen eraginaren menpe populazioak iragan dezakeen denbora laburtzeko behar diren neurriak proposatzea.
- h) Eraginik izan duen populazioa behar diren babes gaiez edota gai terapeutikoez hornitzea.
- i) Planaren zuzendaritzari egoera errealari buruzko informazioa ematea APAren zuzendariaren bidez.

Ondoko hauek osatzen dute Osasun Taldea:

- a) Jarduera eremuan jardungo dutela ziurtatzen duten osasun laguntzako zerbitzuek, Osakidetzaekoen gain adosturiko beste erakunde batzuetakoak ere bai.
- b) Istripua izan duten pertsonak eramateko osasun zerbitzuek, Osakidetzaekoen, Gurutze Gorriekoen, DYAkoeen nahiz enpresa pribatuetakoek, baldin eta biktima asko garraiatzea ziurtatzen badute.
- c) Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko herri osasuneko zerbitzuak.

4.7.3. *Segurtasun Taldea*

Talde hau herritarren segurtasuna bermatzeaz arduratzen da, arrisku edo hondamendiko eremuetan, baita trafikoa zuzentzeaz eta biktimak identifikatzen laguntzeaz ere.

Honako eginkizun hauek ditu:

- a) Herritarren segurtasuna bermatzea.
- b) Larrialdiko eremuetarako sarrera kontrolatu eta murriztea.
- c) Trafikoa zuzentzea, larrialdiko jarduerak eta eragiketak errazteko, eta trafikoa desbideratzea, ibilgailuak pila ez daitezen eta, ahal den neurrian, bide sarean eragin negatiborik egon ez dadin.
- d) Informazio Kabineteak emandako informazioak istripuak harrapatu duen populazioari helaraztea.
- e) Arriskupean dauden pertsonak berehala ateratzea istripu eremutik.
- f) Aginpideen arabera, hildakoak eta biktimak identifikatzea.
- g) Ondasunak babestea, gizartearen aurkako ekintzetatik.
- h) Esku Hartzeko Taldeari laguntzea biktimen erreskate eta salbamenduan.
- i) Biztanleriarentzako abisuak iragartzen laguntzea.
- j) Ekintza Taldeetako kideak istripu aldeetara eramatea.

k) Planaren zuzendaritzari txostenak ematea, APAren zuzendariaren bidez.

l) Bere ardura diren gainontzeko zereginak.

Segurtasun Taldea Ertzaintzako eta Udaltzaingoetako baliabideez osatuko da.

4.7.4. Logistikako Taldea

Talde honen zeregina da ekintza taldeen jarduerarako beharrezkoak diren tresna eta hornigaiak biltzea, eta gertakariaren bilakaeraren ondorioz sortzen diren gainontzeko beharrak asetzea. Bere eginkizunak honako hauek dira:

a) Esku Hartzeko Taldeak lanerako behar diren tresnez hornitzen direla kudeatzea. Esku Hartzeko Taldeak edo Laguntza Teknikoko Taldeak zehazten du zein Esku Hartzeko Talde hornitzen den.

b) Esku Hartzeko beharrak neurtzen laguntzea, baita biztanleriari laguntzeko behar diren tresnak eta hornigaiak zehaztea ere.

c) Larrialdiko aterpetxea, haren hornikuntza eta biztanleriarentzako garraioa antolatzea, eta istripu eremutik populazioa ateratzea beharrezkoa denean, bilguneak kudeatzea.

d) Planaren Zuzendaritzari egindako kudeaketan eta lanen berri ematea, APAren zuzendariaren bidez.

Talde hau osatzen duten taldeak SOS-Deiak Larrialdiak Koordinatze-ko Zentroetan ari direnak dira, baina beste talde batzuk ere erantsiko zaizkio, bai Eusko Jaurlaritzako Saisetakoak, bai garraioez, herrilanez, komunikazioez, eta abarrez arduratzen diren beste erakunde edo instituzio batzuetakoak.

4.7.5. Laguntza Teknikoko Taldea

Talde hau Planaren zuzendaritzaren esanetara dagoen tresna bat da. Talde honen eginkizuna aholkularitza teknikoa ematea da, istripuaren us-

tezko bilakaerari buruz, kalteen nondik norakoaz eta haien eragileak kontrolatzeko edo ondorioak murrizteko ezarri behar diren neurri zuzentzaile eta konpontzaileei buruz; halaber, kalteturik dauden funtsezko zerbitzuak birgaitzeko aholkularitza ematea.

Horretarako, hauek dira bere eginkizunak:

- a) Istripuaren ahalezko ondorioak ebaluatzea: hodei toxikoa eratzea eta zabaltzea, atmosfera lehergarriak, osasunari edo ingurugiroari eragin ahal zaizkion kalteak.
- b) Istripuarekin zerikusia duten gai arriskutsuen izaera, ezaugarri edota erabiltzeko erei buruzko aholkuak ematea.
- c) Aipaturiko neurriak erabiltzeko behar diren lan tresnei eta hornigaiari buruzko aholkuak ematea.
- d) Larrialdiaren eta bere eraginaren jarraipen teknikoa egitea.
- e) Planaren zuzendaritzari lorturiko emaitzen eta larrialdia ebaluatzean sortzen diren beharren berri ematea, APAren zuzendariaren bidez.

Honako hauek egongo dira Laguntza Teknikoko Taldean:

Larrialdiei Aurregiteko zuzendaritza.

- a) Ingurugiro Sailburuordetzako Ingurugiroaren Kalitatearen zuzendaritza.
- b) Garraio eta Herrilan Saileko Uren zuzendaritza.
- c) Segurtasun Nuklearrerako Kontseilua, baldin eta istripuak 7. mailako gaiekin zerikusia badu (erradioaktiboak).
- d) Industria Administrazioarako zuzendaritza.
- e) Trafiko zuzendaritza.
- f) Osasun Publikorako zuzendaritza.
- g) Salerosgai Arriskutsuak garraiatzen dituzten enpresen segurtasun sailburuak, bidali edo jaso behar duen enpresa, istripuan zerikusia

duten gaiak erabili edo sortzen dituzten enpresak, beste garraio enpresa batzuk eta tona kopuru handietarako garabi zerbitzuak. VIII. ERANSKINEAN horiekin harremanetan jartzeko era adierazten da, bai eta salerosgai arriskutsuak garraiatzen dituzten EAEko eta inguruetakoen enpresek dauzkaten baliabiderik egokienak ere. IX. ERANSKINEAN SAMCAR, RENFERen bidez Garraiatzen diren Salerosgai Arriskutsuekin gertatzen diren Istripuetarako Elkarganako Laguntza Sistema, begiratu daiteke. Hor aholkua eman dezaketenen enpresen zerrenda dago, gai kimikoen arabera antolatuta. Istripua gertatu den eremuan gelditu diren hondakinei dagokienez, hondakin toxikoak eta arriskutsuak erabiltzeko kudeatzaile baimendunen bidez egingo da. VII. ERANSKINEAN dago kudeatzaileen zerrenda.

5. JARDUTEKO ERA

5.1. Istripua iragarri

Salerosgai arriskutsuak garraiatzean gertatzen diren istripuei buruzko informazioa Ekintzak Koordinatzeko Zentroari (SOS-DEIAK) adieraziko zaio. Honako datuok jaso beharko dira:

Gertaera non jazo den

- Gertaera mota (ezin aurrera jarraitu, edukiontzia hautsi da, irauli egin da, ihesa izan du, isuri egin da, sutea, eztanda).
- Zerikusia duten salerosgai arriskutsuei eta edukiontzari buruzko datuak (gai mota, identifikazioa, kopurua, edukiera, edukiontzi mota).
- Biktimarik dagoen (sintomatologia).
- Eguraldia edo gertaeraren ondorioak balioesteko eta arintzeko baliok duten bestelako gorabeherak.
- Inguruan dauden elementu zaugarriak: biztanleguneak, ubideak, komunikazio bideak, isurbideak...

Istripuak salerosgai arriskutsuak daramatzen Armadako ibilgailuren bat harrapatzen badu, Gobernuaren Ordezkaritzari eta gertalekutik hurbilen dagon Armadetako edozein agintari militarri adieraziko zaie.

Istripuari buruzko datuak jasotzeari dagokionez, X. ERANSKINEAN agertzen den eredu arautua erabiliko da. Eredu horrek bi mota ditu, errepidez zein trenbidez garraiaturiko salerosgaiak diren.

5.2. Jarduera mailak

5.2.1. Istripuaren larritasuna balioztatzea

Ondorengo atalean adierazten diren egoerak edo jarduera mailak ezartzeko erabiliko dugu balioeste hau. Bi erreferentzia erabiliko dira. Batetik, istripuak zer-nolako ondorioak eragin dizkien pertsonei, ondasunei eta ingurugiroari, eta, bestetik, istripuaren gorabeherak direla-eta ustez gerta daitezkeenak, gaia eta istripu mota.

Honako gorabehera hauei erreparatu beharko zaie:

- Garraio mota.
- Garraiatzen diren salerosgaien izaera eta arrisku maila.
- Garraiaturiko salerosgaien kopurua
- Edukiontzi mota, edukiontziaren egoera eta ustez gerta dakioketena.
- Bata bestearen segidako efektua gertatzeko aukerak.
- Istripuaren gertalekua, bidearen egoera eta trafikoaren dentsitatea.
- Populazioa, eraikinak edo inguruan dauden beste elementu zaurgarriak.
- Ingurugiroa.
- Eguraldia.

– Bidean auto ilara luzeak sortzeko posibilitaterik dagoen.

Istripuak ibilgailuak, edukiontziak eta edukiak izan dituzten kalteen arabera sailkatzen dira:

- 1. mota. Istripua edo matxura dela-eta, garraioak ezin du aurrera jarraitu; hala ere, salerosgai arriskutsuen edukiontzia ondo dago eta ez da irauli, ezta errailetik irten ere.
- 2. mota. Istripuaren ondorioz, edukiontziak kalteak izan ditu edo irauli edo errailetik irten da; edukia, baina, ez da edukiontzitik irten edo isuri.
- 3. mota. Istripuaren ondorioz, edukiontziak kalteak izan ditu eta edukia edukiontzitik irten edo isuri da.
- 4. mota. Edukiontziak kalteak edo sua du, eta edukia irten da garretan.
- 5. mota. Edukiak eztanda egin du eta txikitu egin du edukiontzia.

Lehen aipaturiko egoeren arabera eta istripu motaren arabera zehaztuko dira esku hartzeko eremuak eta alerta eremuak, populazioari, ondasunei edo inguruari eman beharreko arretari erreparaturik.

Horiek horrela, zeri deritzo esku hartzeko eremua? Bada, istripuaren ondorioek pertsoneri, ondasunei edo ingurugiroari eragindako edo ustez eragin diezazkiekeen kalteek hartzen duten eremuari, baldin eta kalteok berehala babes neurriak erabiltzera behartzen badute. Eta noiz sortzen da alerta eremua? Bada, istripuaren ondorioek, nahiz eta biztanleriarentzat agerian egon, populazio horri informazioa ematea besterik eskatzen ez dutenean. Eremu horretan, baina, baliteke babes neurri bereziak behar dituzten pertsona taldeak egotea, pertsona horien egoera bereziki zaurgarria denean (talde kritikoak).

APAren zuzendariak egingo du balioesteko proposamena.

5.2.2. Jarduera mailak (larritasunezko aldiak edo egoerak)

Batetik, istripuaren ezaugarriak eta horrek eragindako edo ustez eragin ditzakeen ondorioak direla-eta esku hartzeko sortzen diren beharren arabera, eta, bestetik, esku hartzeko dauden baliabideen arabera, jarraian adierazten diren larritasunezko egoeretako bat ezarriko da.

0 egoera. Eskura diren baliabideez kontrola daitezkeen istripuei dagokie. Egoera horretan, baita aurreikus daitezkeen bilakaerarik txarreanean ere, ez dago arriskurik pertsonentzat (esku hartzeko lanetan ari direnez kanpora), ez ingurugirorako, ez istripua gertatu den lekuaz kanpoko ondasunetarako. Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzak horretarako propio eratu dituen ekintza taktiken bidez koordinatuko dira egoera mota hauek.

Ekintza taktika hauek Larrialdiei Aurre Egiteko Legeak larrialdi ez tamalgarrien kudeaketari buruzko III. Kapituluaren oharrekin dituen jarduera protokoloak dira. Horren irizpideak 26. artikuluan azaltzen dira.

Ekintza taktika bakoitza plan sinoptiko bat da, istripuaren faktore baldintzatzaileak eta egoera (euriak, haizea, hezetasuna, ...) adierazten dituena. Faktore horien arabera, beraz, zerbitzu batzuek parte har dezaten aurreikusten da (Plan Bereziko Ekintza Taldeak) edo horiek jakinaren gainean jartzea. Gainera, faktoreon arabera, taktika horrek bideratu behar duen istripuaz arduratzen diren pertsonen eta agintariei ere jakinarazi behar zaie.

5.2.1 atalean (Istripuaren larritasuna balioztatzea) 1-5 motatakoak bezala deskribatu direnak dira salerosgai arriskutsuekin ustez gerta daitezkeen istripu tipifikatuak, Plan berezi hau indarrean ipini aurretik ekintza taktika bat garatzea eragin dezaketenak, alegia. Hortaz, EG edo TG izena emango zaie (errepidez edo trenbidez garraiatzen den, hurrenez hurren), 1etik 5era bitarteko zenbaki bate-

kin batera (5.2.1. idatz-zatian egindako deskribapenari jarraiki).

Indarrean jarritako taktikaren zuzendariak, istripuaren larritasuna ikusita eta ohiko bideak erabilia, Herrizaingo Saileko agintari eskumendunari adieraziko dio bere baliotzatzea, agintariak ekintza egoera aldarrika dezan.

1. *egoera.* Gertaturiko istripuak eskura dituzten baliabideez kontrola badaitezke ere, behar-beharrezkoa da istripuaren eraginez arriskupean dauden edo egon litezkeen pertsonak, ondasunak edo ingurugiroa babesteko neurriak erabiltzea. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailburuari dagokio egoera hau aldarrikatzea, eta horrela egiteak Plan hau indarrean jartzea dakar.
2. *egoera.* Istripu hauetan Plan honetan aurreikusten ez diren baliabideak erabili behar dira istripuaren ondorioak kontrolatzeko edota pertsonak, ondasunak edo ingurugiroa babesteko neurriak ezartzeko. Baliabideok Estatuko Planaren antolakuntzak ipini behar ditu.
3. *egoera.* Salerosgai arriskutsuak garraiatzean gertatzen diren istripu hauetan, nazio interesari eragiten diotela erabaki ostean, Barne Ministroak aldarrikatu behar du egoera hau. Egoera honetan Herrizaingo Sailburuak izendatuko du Estatuko administrazioko agintariarekin batera Zuzendaritza Batzordea osatuko duen agintaria. EKZ EKBZ bilakatzeko da. Egoera hau sortu duten faktoreak desagertutakotan, 2. egoera edo normaltasuna aldarrika daiteke.

5.2.3. Egoera bakoitzari buruzko aldarrikapen formala

Salerosgai arriskutsuekin istripua gertatu ostean 1. egoerako edo gogorako egoeretako gorabeherak gertatzen direnean, Plan Berezi hau indarrean jartzeko aldarrikapen formala egingo da.

Larrialdia 0 egoerakotzat jotzen bada, ez da plan hau indarrean jarriko eta dagokion ekintza taktika erabiliz egingo zaio aurre.

5.3. Ekintzak

5.3.1. Istripua kontrolatu eta neutralizatzea

Istripuak kaltetutako edo kaltetu daitezkeen eremuetan izan dezakeen eragina murrizteko asmoz, Planaren Zuzendaritzak agindutako neurriak eta ekintzak beteko dituzte Ekintza Taldeek, betiere istripuaren larritasuna urritzeko. Ekintzon bidez, bada, istripuarekin zerikusia duten gaiak egonkortu edo eutsi nahi da gaiok isuri direnean edo isurtzeko arriskua dagoenean. Ekintzok fisikoak edo kimikoak izan daitezke:

- a) Harea, sepiolitak, etab. erabiliz zurgatzea.
- b) Estaltzea, behin-behineko neurri gisa, euriak eraman eta zorueta iragazi ez daitezen.
- c) Urtzea, arriskua segurtasun maila egokietara jaisteko.
- d) Eustea, ezpondak edo hesiak erabiliz.
- e) Barreatzea, gas sukoiaren edo toxikoen pilaketa urritzeko.
- f) Edukiontzi txikiak handiagoak diren beste batzuetan paketatzea.
- g) Tapoiak edo adabakiak erabiltzea, pitzadura edo arraildurak ixteko.
- h) Haizatzea, presioa jaisteko eta edukiontzian gerta litekeen eztanda saihesteko.
- i) Lurruna kentzea, isuri likido egonkor baten gainean bitsa ezarri.
- j) Erretze kontrolatua, eztanda egin dezaketen atmosferak eratu ez daitezen.

- k) Sakabanatzea, itsaso eta ibaietara isuri diren gaiei eragiten dieten eragileen bidez.
- l) Jelatzea, neutralizatzea, polimerizatzea eta gotortzea: salerosgai arriskutsu batzuen berezko arriskua murrizteko neurriak.

5.3.2. *Populazioa babestea*

Biztanleak babesteko neurriak bitara biltzen dira: biztanleak alde zuzenetik prestatzea, nork bere burua babesteko hartu behar dituen neurriak buruz edo, beraiei gaztigua eman edo neurri horiek abian jartzea, baldin eta alde zuzenetik neurri gisa erabakitzen bada, biztanleak leku batera bildu behar direla edo beraiek dauden lekutik atera behar direla, larrialdiak txarrera jotzen bada.

Planak ondoko neurri hauek hartzen ditu, biztanleak babesteko:

- Nork bere burua babesteko neurriak: biztanleek eurek gauza ditzaketan neurri errazak dira.
- Leku batera biltzea: neurri hau biztanleak euren bizilekuetan, barrunbe edo bizitegi hurbiletan babestea da, noiz eta neurria hartuko dela iragartzen den unean.
- Urrutiratu eta babestea: biztanleak leku arriskutsuetatik leku ziurretara eramatea da; oro har, leku horiek ez daude urruti, eta bakoitza, bere bitartekoak erabiliz, aldatzen da leku batetik bestera.
- Sarrerak kontrolatu eta ukituriko aldeetan ordena zaintzea.
- Edateko uren erabilera eta bainatzeko uretako sarrerak kontrolatzea, inguruko urak kutsatu direnean.
- Ebakuazioa: arrisku handieneko aldean dauden biztanleak handik urruti dauden aldeetara eramatea da.
- Osasun laguntza: kaltetuak mailakatzea, kontrolatzea eta istripua gertatu den lekutik ateratzea, lehen mailako eta premiazko laguntza emateko, baita osasun publikoa kontrolatzea.

– Larrialdiko aterpea eta hornitzea.

5.3.3. *Populazioari informazioa ematea*

Zabalkunde kanpainak eta biztanleei informazioa emateko kanpainak egiten dira Plan honek jorratzen duen arriskuari buruz; horiek ez ezik, plan bereziaren eragiketen barruan, lehentasuneko ekintza da gaztigitzea. Gaztigu eta informazio horiek alarma mezuen eta jarraibideen bidez zabaltzen dira, eta populazioa babesteko oinarrizko neurriak dira, benetakako eta osoko informaziorik ez izateak dakarren babesik eza saihesten baita.

Biztanleei emango zaien informazioa, edozelan ere, planaren zuzendaritzak emango du; izan ere, zuzendaritza horrek emango ditu Informazio Kabineteak hedatu beharreko mezuak, behin, Kontseilu aholkulariaren bitartez, larrialdiaren gaineko informazioa gertatu eta iragazita.

Gaztiguak emateko sistema horien helburua biztanleei informazioa ematea da, kasuan-kasuan komenigarriena den jarduerari buruz eta hartu behar diren babes neurri nagusiak ezartzeari buruz: nor bere burua babestea, leku batera biltzea, urrutiratzea, istripu lekutik jendea ateraztea.

Biztanleei gaztiguak emateko planean ezarrita dauden sistemak hauexek dira:

a) Larrialdietarako Udal Planen bidezko zuzeneko gaztiguak

Tokian tokiko megafoniaz egingo dira; megafonia hori finkoa edo higikorra izan daiteke, eta Segurtasun Taldeko kideek emango dituzte gaztiguak. Gaztigu horiek bide ematen dute biztanleei informazioa zuzenean emateko, berehalaxe ezarri behar diren babes neurrien gaienean.

b) Gaztiguak, gizarte komunikabideen bitartez.

Adierazi den bezala, hedatu behar diren mezuak gizarte komunikabideei Informazio Kabineteak ematen dizkie. Komunikabideok planaren zuzendariaren erakunde laguntzaileak dira eta, Herri Babesari buruzko legeriaren arabera, nahitaez eman behar dute laguntasuna, mezu horiek hedatuz.

Ilido horretatik, Larrialdiei Aurregiteko Bideak (LABI), bere barruan Plan Berezi hau duenak, telebista eta irrati hedapeneko sozietate emakidadunekin protokolo, egiuneak edota hitzarmenak sustatzen ditu. Horiek, bada, bermatzen dute biztanleei eman beharreko mezu eta gaztiguak gehiago hedatzea.

Beste organo edo erakunde batzuen bitarteko gaztiguak. Organo eta erakundeek, informazioa hedatzeko dituzten komunikabideen bidez, hedatuko dute planaren zuzendaritzak, Informazio Kabinetearen bidez, ematen duen informazioa.

5.4. Bitarteko eta Baliabideen Katalogoa

Plan berezi honen arabera, giza osagaiak eta osagai materialak, eta azken hauen barruan edozein jite edo titular dutenak, dira higi daitezkeen bitarteko eta baliabideak. Gainera, edozein arrisku edo ezbeharretan erabil daitezke.

Norbanakoen titulartasunari dagozkion bitarteko eta baliabideak higiarazi eta erabiltzeko, LKLren 20. artikuluko irizpideen arabera, eta herritarrek larrialdiko egoeretan dituzten eginbeharrak arautzen dituen legeetan xedatutakoarekin bat etorritz (urtarrilaren 21eko 2/1985 Legearen II. kapitulua).

LABIk badu bere bitarteko eta baliabideen katalogoa; eta katalogo horretan Euskal Autonomia Erkidegoko udal eta foru administrazio guztiak sortu eta iraunarazitako bitarteko eta baliabide guztiak sartzen dira, bai eta LABIri atxikitzen zaizkion gainerako administrazioen bitartekoak eta baliabideak ere. Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzari dagokio katalogo hori etengabe eguneratua izatea.

Esku Hartzeko Taldean dauden zerbitzuek ematen dituztenak dira 5.3.1. atalean adierazitako ekintzak burutzeko behar diren bitarteko bereziak:

- Sua Itzaltzeko eta Salbamendurako Zerbitzuak, eta IV. ERANSKI-NEKO inbentarioan agertzen diren baliabideak izango dituzte.
- Salerosgai arriskutsuak garraiatzen dituzten enpresak. VIII. ERANSKINEAN azaltzen dira enpresa hauetako batzuen baliabideak.
- Istripuan zerikusia duen gaia sortu duen enpresa edo gai hori hartu behar duen enpresa.
- FEIQUERen eta RENFERen (SAMCAR) artean eta FEIQUERen eta Herri Babeserako Zuzendaritza Nagusiaren artean loturiko hitzarmenetan zehazten diren enpresa laguntzaileak. Hauek laguntza maila desberdinak eskaintzen dituzte, hala nola aholkularitza teknikoa edo istripuaren gertalekura baliabideak eramatea.
- Hondakin Toxiko eta Arriskutsuen Kudeatzaileak
- Tona kopuru handietarako garabiak.
- Foru Aldundietako Herrilanen zerbitzuak.
- Garbiketa industrialetarako enpresak.
- Autobideetako zerbitzuak

6. SALEROSGAI ARRISKUTSUEKIN GERTATURIKO ISTRIPUEI BURUZKO TOKIKO JARDUERA PLANAK

Euskal Autonomia Erkidegoko plan berezi honen ustez, komeni da udalerrri edota toki erakundeetako organo eskudunek salerosgai arriskutsuekin gertaturiko istripuetan jarduteko plan bereziak gertatu eta onestea (LKL-en 17.2 art.). Hori horrela, ildo gidatzaile batzuk eman dira herri babesa udalerrietan antolatzeko. Ildo gidatzaileok alde zuzeneko neurri eta esku hartzeari begira daude, gerta litezkeen istripuen aurrean; edo zelan ere, behar den beste malgutasun izango da interpretazio eta jarduerari begira, inguruabarrek kasuan-kasuan hartaraturik; eta behar den

beste malgutasun zainduko da Euskal Autonomia Erkidegoak indarrean jartzen duen plan bereziaren jardute eta zuzendaritzaren egituraren ere.

Modu horretara, kapitulu hau oinarrizko gidabidea da udal eta toki erakundeentzat, baldin eta, istripuak izateko arrisku aldeetan egoteagatik, arrisku horri aurre egiteko plana egin nahi badute; horrezaz gainera, oinarrizko eginkizunak eta edukia zehaztuko dira.

6.1. Tokian Tokiko Jarduera Planaren oinarrizko xede eta eginkizunak

Salerosgai arriskutsuak garraiatzearen arriskua dela-eta prestatzen den tokian tokiko jarduera planaren oinarrizko xedea hauxe da: istripuak gerta daitezkeen aldeetako udalek eta biztanleek, gidabide gisa, larrialdi horiei aurre egiteko gailu bat, mehatxupeko biztanleria babesteko gai dena eta, ahal den neurrian, ondasunei eta funtsezko zerbitzuei eragin diezazkiekeen kalteak saihestu edo murrizteko balio duena. Planak, betiere, Plan Bereziaren antolakuntzan erabat sarturik dauden tokiko bitarteko eta baliabideen arabera jokatu behar du.

Salerosgai arriskutsuak garraiatzean sor daitezkeen larrialdietako egoerak direla-eta tokian-tokian dauden planek, funtsean, jarduera batzuk garatu behar dituzte; hain zuzen ere, honako hauek:

- 1) Lurraldearen katalogazioa egitea, lurraldeak berak jasaten dituen arriskuen eta zaurgarrien identifikazioaren arabera.
- 2) Tokian tokiko antolaketaren egitura eratzea, hala betearaztekoa, nola eragitekoa; bai eta prozedurak eratzea, toki eremuan, salerosgai arriskutsuak garraiatzean sor daitezkeen larrialdietan esku hartzeko.
- 3) Istripu lekutik jendea ateratzeko, osasun laguntza emateko edota defentsetarako erabil daitezkeen udalaren zein norbanakoaren baliabide eta bitartekoen zerrenda eguneratua prestatzea.

6.2. Euskadiko Errepideez eta Trenbideez garraiatzen diren Salerosgai Arriskutsuekin gerta daitezkeen Istripuei Aurre egiteko Plan Bereziaren eta tokiko planen arteko lotura

Salerosgai arriskutsuak garraiatzean gerta daitezkeen istripuak direla-eta tokian-tokian jarduteko plana abian jarritakoan, planaren zuzendaritzak plana abian jarri dela adieraziko dio Plan Bereziaren zuzendariari eta hori jakinaren gainean dagoela egiaztatuko du. Adierazpen hori SOS-DEIAK zentroen bidez egingo da. Era berean, ekintzen egoera eta garapenaren nondik norakoak ere adieraziko zaizkio, bai eta larrialdia dela-eta zer-nolako aurreikuspena eta aldaketak egiten diren eta ustez noiz amaituko den ere.

Bereziki, SOS-DEIAK zentroen bidez, norberak erantzuna emateko duen gaitasuna behar adinakoa ez dela aurreikusi edo egiaztatu dela jakinarazi behar dituzte, edota falta dituzten baliabideak behar dituztela edo baliabide horiek euren lurraldeaz kanpora ere jardun behar dutela. Edozelan ere, SOS-DEIAK zentroen bidez bideratuko dira planaren titularrak falta dituen bitartekoak eta baliabideak mugitzeko eskaerak.

Salerosgai arriskutsuak garraiatzean gerta daitezkeen istripuak direla-eta Plan berezia indarrean jarrita eta 2. egoera aldarrikatuta, Tokiko Jarduera Plan horiek aurrekoan txertatuko lirateke, eta berez jarriko lirateke abian (ordura arte jarri ez badira).

Plan Berezia indarrean jarrita, EKZ/EKBZk berehalaxe jakinaraziko die istripuaren eraginpean dauden udalei Erkidegoko edota Estatuko agintariek alerta egoerari, alarma egoerari edo plan indarrean jartzeari eta horren amaierari buruz egindako edozein adierazpen edo komunikazio formal. Era berean, berehalaxe jakinaraziko die eragin diezaiekeen edozein arriskua ere.

6.3. Jarduera Plana ezarri eta iraunaraztea

Udalbatzek, zeinek bere agintepeko arloan, onartuko dituzte salerosgai arriskutsuak garraiatzean sor daitezkeen istripuak direla-eta egiten

diren Esku Hartzeko Udal Planak. Hauek Larrialdietarako Udal Planean txertatuko dira.

Jarduera Plan guztiak eguneratu eta berrikusi egingo dira, euren eragingarritasuna ziurtatzeko. Istripu itxurak eta ariketak egingo dira planen eragingarritasun hori egiaztatzeko eta, beti istripu bat gertatu eta larrialdia amaitu ostean, ikasitakoaz edota lorturiko esperientziaz baliatzeko.

7. PLANA EZARRI ETA IRAUNARAZTEA

Herri Babeserako Euskal Batzordeak Plana onartu eta Herri Babeserako Espainiako Batzordeak homologatu ostean, Herri Babeserako Euskadiko Planaren Zuzendaritzak (LABI) plan hau plan orokorrera biltzeko eta, beraz, plana ezarri eta iraunarazteko behar diren jarduerak bideratuko ditu.

Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzak ezartzeko eta iraunarazteko jardueren urteko plangintza ezarriko du. Hots, azpiegiturez hornitzea, zabaluntza eta istripu itxurak, salerosgai arriskutsuei buruzko informazioak aldian-aldian eguneratu eta berraztertzea.

7.1. Ezartzea

Plan hau lanean jarriko dela ziurtatzeko, honako ekintza osagarri hauek burutu behar dira:

- Aholku Batzordeko kideak eta Informazio Kabineteko kideak izendapena eguneratuta edukitzea, bai eta non dauden jakiteko sistemak ere.
- Ekintza Taldeak osatzen dituzten agintarien (eta haien ordezkoen), kideen eta bitartekoen izendapena gaurkoturik edukitzea, bai eta non dauden jakiteko sistemak ere.
- Esku hartzen duten guztiek Plana ezagutzen dutela ziurtatzea, nork bere betekizunak behar bezala bete ditzan.

- Esku Hartzeko Taldeak erabil ditzakeen baliabideen inbentarioa gaurkotzea.
- Laguntza Teknikorako Taldearen eginkizunak burutzeko behar diren baliabideak balioestea.
- Ezarritako ereduaren eraginkortasuna, parte hartzaileen prestakuntza eta baliabideak gertu daudela egiaztatzea, Zuzendariak beharrezkotzat jotzen dituen istripu itxurak eginez.
- Esku hartzen duten erakunde eta elkarteekin protokoloak, egiuneak eta hitzarmenak lotzea, norberaren eginkizunak behar bezala argitzeko eta baliabideak edota laguntza teknikoak esleitzeko.

Planean nolabaiteko erantzukizuna duten pertsonen prestakuntza plana ezagutuz hasten da, plan osoaren edo zati baten berri emanez, bakoitzak dituen eskumenen arabera.

7.1.1. Plan Bereziaren azpiegitura egiaztatzea

Oinarritzko azpiegituren funtzionalitatea izan badela eta egokia badela egiaztatuko da, beraiek jardun dezaten; beren beregi, ondokoak egiaztatuko dira:

- Transmisio sarea: zerbitzuen arteko komunikazio sistemak.

EKZri, Informazio Kabineteari eta Ekintza Taldeei behar beste baliabidez hornitzea.

Biztanleei gaztiguak emateko sistemak (ordena indarren eta, bereziki, udaltzaingoan eta Ekintza Taldeen hornigaiak).

7.2. Iraunaraztea

Plana behin ezarri eta gero, eta indarrean dirauen artean, planaren zuzendariak planaren erabateko eragingarritasuna bermatzeko neurriak hartuko ditu, bai eta plana gaurkotzeko eta egokitzeko ere.

7.2.1. Eguneratzea eta berriz aztertzea

Planaren balio tekniko eta operatiboa aldiari-aldiari berriz aztertu eta eguneratuko da, mantentzeko egitarau baten arabera. Horrela, Herri Babeserako Euskadiko Lurralde Planari dagokion urteko berrikustea egitean, Plan Berezi honen berrikustea ere egingo da.

Horretarako, errepidez eta trenbidez garraiatzen diren salerosgai arriskutsuekin gertatzen diren istripuei buruzko datuak jasotzeko eredu normalizatuak, Plan honen 4.2. idatz-zatian adierazten denak, jasotako informazioaz baliatuko da (X. ERANSKINA).

Era berean, errepidez eta trenbidez garraiatzen diren salerosgai arriskutsuen joan-etorrien mapa eguneragarria izango da. Eguneratze horri begira salerosgai arriskutsuen zirkulazioan gertatu diren aldaketak ondoriozta daitezke, baita istripuotan sarrien agertzen diren gaiak ere.

V. ERANSKINA osatzen duten esku hartzeko fitxei dagokienez, osatu egin behar dira salerosgai hauek garraiatzen dituztenen joan-etorria egin eta eguneratutakoan nabaritzen diren salerosgai arriskutsuak gehituz.

IV, VII, VIII ETA IX. ERANSKINAK ere eguneratu behar dira, plan hau erabili behar izatekotan erabili beharreko bitarteko eta baliabideei buruzko datuei dagokienez, hain zuzen ere. Ezohiko berrikustek izango dira arauen aldaketek, plan berriak antolatzeak edo istripuokin lan egitean hartutako esperientziak eragindakoak.

7.2.2. Istripu itxurak

Istripu itxurak egiteko egitarau bat burutuko da, Planaren egitura istripuek sorturiko egoerarako behar bezala egokitzen diren zehazteko. Hori eginda, antzemandako hutsuneak zuzendu ahal izango dira.

Istripu itxurak egiteko egitarau honek Plana bere osotasunean edo zati batean lanean jartzea erabakiko du. Hori eginda, eragin egokirik ez duten alderdiak aldatu edo hobetuko dira.

7.2.3. Etengabeko prestakuntza

Honekin zerikusirik duten langileen prestakuntza ezartzearen aldian egiteko araututa dago eta etengabeko eginkizuna izan behar du, behin eta berriz aztertzen den agiri bizi batekin ari baikara.

Trebakuntza ariketak etengabeko prestakuntzaren zatiak dira, eta Plan honi esleitu zaizkion baliabide eta bitartekoak edota planetik kanpokoak zatika mugiaraztean dautza. Horrela, Ekintza Taldeek benetako larrialdi batean erabili behar dituzten baliabide eta bitartekoak ezagutze-ko aukera izango dute.

Parte hartu behar duten zerbitzuen arduradunak, ariketa egitarau bati jarraiki, ariketa bat prestatuko du, zerbitzuko kideek benetako istripue- tan erabili behar dituzten baliabide eta bitarteko guztiak edota behar di- tuztenak erabil ditzaten.

Ariketa egin ostean, ekintzen eraginkortasuna eta Ekintza Taldeko ki- deek jasotako esperientzia, iritzi eta iradokizunak balioetsiko dira, Plana- ren eraginkortasuna hobetzeko asmoz.

7.2.4. Istripuek eragindako larrialdiei buruzko estatistikak

Istripu mota honek sorturiko larrialdien estatistikaren bidez, gehien nabarmentzen diren datuak jaso eta aztertu nahi da: gertalekua; istripuan zerikusia izan duten gai arriskutsuen ezaugarriak; larrialdi egoera sailka- tzea eta biztanleei, ondasunei eta ingurugiroari eragindako ondorioak sailkatzea. Horri esker, Plan honen antolakuntza eta eraginkortasuna ho- betzeko jarraibideak ezarriko dira eta aurrea hartzeko ekintzak eta neu- rriak funtsatuko dira.

Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzak egingo ditu estatistikok, XI. ERANSKINEAN agertzen diren eruedetan jasotako datuei jarraiki, bai errepideetan gertaturiko istripuetan, bai trenbideetan jazotakoetan. Ho- rretako, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Trafiko Zuzendaritzaren

eta RENFEren laguntza izango du Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzak, RENFEri dagokionez Mirandako Ekintzen Kudeatzaitzaren bidez, istripuak errepideetan edo trenbideetan gertatu direnean, hurrenez hurren.

Agiri honen 2.3. atalean (Istripuak) begira daitezke salerosgai arriskuak garraiatzean jazotako istripuei buruzko kopururik adierazgarrienak.

Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzak, gainera, bere lurraldean gertatu diren istripuak direla-eta jazotako larrialdiei buruzko datuak adierazi beharko dizkio Gobernuaren Ordezkaritzari urtero. Horretarako XI. ERANSKINEAN agertzen den estatistika aldizkaria erabiliko da.